

**Frai Bartolome de Santa Teresa**

**EUSKAL-ERRIJETAKO  
OLGEETA  
TA DANTZEEN  
NEURRIZKO  
GATZOZPINDUBA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen jatorria: Bizkaiko Foru  
Aldundia

[[http://www.bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu\\_euskara.htm?zona=gaia](http://www.bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu_euskara.htm?zona=gaia)]: Idazlan guztiak, Frai Bartolome Santa Teresa (Julen Urkizaren eta Luis Baraiazarraren edizioa), Euskaltzaindia / Bizkaiko Foru Aldundia, 2000

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00547.htm>

EUSKAL-ERRIJETAKO  
OLGEETA TA DANTZEEN  
NEURRIZKO-GATZ-OZPINDUBA

*AITA PRAI BARTOLOME SANTA TERESA,  
MARKINAKO KARMEN ORTOZEKO  
PREDIKADORIAK PRESTAUBA.*

IRUÑEAN. JOAKIN DOMINGO  
Nausijaren eta Gaztiaren Liburugillaan.  
Biar dan ondo izatiagaz.  
1816 urtian.

# JESUKRISTO GEURE JAUN KURUTZIAN JOSIJARI

Nori, Jauna, zeuri baino besteri eskini negijonik, kartilla edo liburu txiki onetan lagunai opa deusedan prutu gitxija? Ezer badauka onik, zeuria da eskina guztietati. Bestia neuria. Kurutze orretan zeure Gorputz biguna, ederra, garbija ta Jaungoikozkua arantzaz ta ultzez zulututa, kolpez zaurituta, azotez eratzita, autsez ta luurrez ezainduta, biazturez ta ozpinez mingotxtuta, odoltuta, illunduta, minduta, esegita, burlaz ta desondraz estalduta, oinak ta besuak burdina zorrotzez josita, geu gaiti illten zakustazanian bateti; ta besteti, itsutasun zorigaistoko bategaz ta ezjakin lainotsu bategaz etsaijak beretuta daukazala zoro zororik, zeure odol santubaren balijuagaz erosi ta garbitutako arimak ibiliera ta olgeeta sarritako nasaijetan, eureen luurrezko gorputz ustelkorrai nai ta gusto laarregi emotia gaiti; Zeuk ondo dakizun ustiagaz, ta neure arimako ta bijotzeko gogorik zintzuenagaz, zeure esku jotsijeetara bialduten dot, Jesus Kurutze-

kua, ibiliera ta olgeta santubeen *neurria*, euki legizaneen *gatza*, ta ezin legizaneen *ozpina*. Zeuk dakuszu, nire naija egijazkua ta arteza dana. Baita nire egina ezer ez dana bere. Emon egijozu bada, Jesus maitia, *neurrizko-gatz-ozpin* oni zeure amodijuaren su bitzija, ixio ta erre dagizan luurrezko gorputzetako pekatubeen autsak, ta sortu dagijan geure arimeetan zeure bildur santuba ta grazija. Parkatu, Jauna, niri, Zeuri berba egiten azartuba.

Olgeetia, ibiltia, denporia iragotia, aisia artutia ta dibertidutia dira, kristinaubeen goguan, egitadeetan ta auan txito sarri dabilzanak, ta oitura onai edo galdubai askotan izatia emoten deutseenak. Au gaiti ainbeste gauza esaten dira eureen gainian Eskritura Sagraduban, theolojijako ta erakuste oneko liburubetan. Eureen izenagaz batiatuten dira, bai gorputz kansaubari atseen eragiteko, bai buru nekatuba arinduteko ta bai osasun jausija sendotuteko dagozan olgeta modu inozentiak. Ta bai, pekatuba, nasaitasuna, libertadia, desonestidadia ta oitura inpamiak beti oinian eukiteko ta geitubaz eruateko, arimeen arerijuak asmau dituban olgeeta galdubak

bere. Izenak ez dirian legez eureenez pekatuzkuak, ta dagozan legez olgeeta batzuk ez txarrak, pekatu ez dirianak, guztiak onzat emon gura litukee mundubak, diabrubak eta aragijak.

Alan olgeetiaren izenagaz ta estalgijagaz egiten dira, kristandade guztia desondreetan dabeen gatzak, ta aintxinako jentilak bere lotsaz baino egiten ez zitubeen pekatubak. Oneen kontra ixildu bagarik diadar egiten dabee Eleisiaren giza aldi guztietako Gurasuak eta Erakuslaak. Baita Espiritu Santubak bere leku askotan, aitu gura dauenarentzat.

Olgeeta guztien artian lekurik zabalena ta zer pensau geijeen daukana da dantzia. Lenago edo geruago, modu batera edo bestera, gitxiago edo geijago dantzetan ez dan olgetiak, ez dauka gatzik, ez dauka gustorik. Orregaiti ainbeste gauza esan dira ta eskribidu dira, Moisen denporati ona dantziaren gainian. Batzuk lau ormaren artian sartuta, dantziak berezko izatian daukazan asmo utsai jarraituta, eskribidu ebeenak. Ta bestiak, gizonaren naturaleza jausijari begiratu-ta, Ebanjelijoko espiritubagaz naasteko dantzia egiten dabeen moduban esaminauta, eureen

gainian berba egin daueenak. Areek esan dauee, dantzia berez ez dala pekatu. Ta bestiak, dantzia berez pekatu izan ez arren, egiten dan moduban ta naturaleza jausijak gizon ta emakume naaste egin leijan moduban, pekatu dala edo pekatuko okasino urrekua dala.

Menturaz ez da kristandade guztian dantza desonestubagorik ta lotsa gitxiagokorik egiten egun argiz, euskal-errijetan baino. Jazo leiteke au geure euskeran kasik ezer bere eskribiduta ez dagualako dantza galduben gainian.

Bada, izanik euskal-errijetako jentia kristi-nautasun andikua euren tratu, artu emon ta egi-tade guztietan, dira txito nasaijak euren olganza-ko dantzeetan.

Au gaiti pensau dot, azartu biar dodala naas-teko dantzeen bereno madadikatuba azaldeeta-ra, euskal-errijetako kristinau itsubak kontuban jausi ditezan eureen uts egite andi onetan. Ta ene ondorik beste batek argi geijagogaz, pluma obiaguagaz ta zelo santubaguagaz amaitu daji-jan sail au. Eskatuten deutseet guztiai: au iraku-ri, noberari ez bajuako legez, naasteko dantzai

begiratu ta dantzarijak ondo ondo esaminatu artian, ez naijela sinplezat euki.



# 1. KAPITULUBA

## Olgetiaren gainian

- §. I. Nosbait zetan edo atan olgetia, naturaleziak eskatuten dabena da.
- §. II. Errazozeko olgetiak ez dau eragozten Jangoikua serbidutia.
- §. III. Kristinauba Jangoikuagan alegere izatia, gauza ona da.

### §. I.

*Nosbait zetan edo atan olgetia,  
natureleziak eskatuten dabena da*

Uts egite atrebiduba ta pena andija mereziduten dauena da, kristinaubari Jangoikuak imini deitsan baino lege astunagua ta karga andijagua ipintia. Jangoikuaren legia ta ordenia arteza, argija ta santuba da. Kristinau guztiak ikasi ta gorde biar dabeena da. Baina ez, gitxituta, mudauta, noberak gura daben moduban, ezbada Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiaren espiritubak

erakusten daberen moduan. Jaungoikuak kondeneetan dabena, gizonak onzat emon ezin legijee. Ezda Jaungoikuak onzat emoten dabena bere, gizonak kondenau. Maldizinoe baten azpijan eragotzita dauka Jaungoikuak, gauza ona txarra dala, ta gauza txarra ona dala erakustia. Propeta paltsuen lekuban konteetan ditu Jangoikuak ta zamai andijakin kastigetan ditu, eureen burutazi-noiagaz legia eginda, Jangoikuaren esana balitz legez predikeetan dabeenak.

Au gaiti olgetiaren gainian berba egiten danian, alderatu biar dira uts egiteko eskina bijak, beste edozein gauzatan legez. Bata *laarre-gija*, ta bestia *gitxijegija*. Batzuk zabalduten ditubee olgeetaak pekatuzkuetaragino. Ta beste batzuk laburtuten ditubee gatx bagakuak bere. Olgeeta asko dirian legez pekatuzkuak, kristinaubak inos bere egin biar ez ditubanak, beste asko dagoz inozentiak, arimara gatxik ez dakarreenak ta naturaleziak eskatuten ditubanak, errazoiaren legeti urten bagarik.

Olgeetia da, noberaren zeregin nausijai ta obligazinoiai itxita, goguak eskatuten deutzan beste gauza baten, denporia iragotia. Ta au,

nosik beinako batzubetan naturaleziak eskatu-  
ten dabeena, da. Ez dago ezer bere munduban,  
inos itxi bagarik jarduteko, gizonak artuko leu-  
kian zereginik. Asmau bedi naijeen dan gauzia,  
geijeen gusteeetan jakona, ta berari itxi bagarik  
beti bizi biar badau, laster kansauko da. Kodizijo-  
so batek geijen nai dabena da diruba konteetia  
ta poltsaan gordeetia. Baina, jagi bagarik beti  
jardun biar baleu diruba konteetan ta gordeetan,  
egun gitxi barru guratuko litzaateke, biarra  
mudeetan. Guleru batek janian ta edanian dauka  
bere poz ta gusto guztia. Baina, beti jaaten ta  
edaaten egon biar baleu, laster aspertuko litzaa-  
teke. Jokolari batek jokuan dauka bere gogua.  
Baina, urte osuan egon biar baleu jokuari itxi  
bagarik, gania etorriko litxakio jokuari isteko.

Beste ainbeste daukee, ta gogo betia emoten  
dabee, inos itxi bagarik ekin ezkeru, estudijuak,  
lanak, orazinoiak, errazubak, biarrak, luak, soi-  
nubak, dantziak ta beste gauza guztiak. Ez beste  
gauza gaiti, ez bada geure jenijuak, kondezinoiak  
edo naturaleziak beti sen baten biar baten edo  
gauza baten, gobait egin bagarik, iraun ezin  
dabelako. Orregaiti zein arimako ta zein gorpu-

tzeko lanetan, arei itxita, nosbait atseetia ta sosegetia, geure izatiak edo naturaleziak eskatuten daben gauzia da.

## §. II.

### *Errazuazko olgeetia ez dau eragozten Jaungoikua serbidutia.*

Batzuk uste dabee, olgeeta guztiak diriala libre kristinaubarenzat. Beste batzuk, ain dira kondizinoe latzekuak, estubak, iraaizjak eta siku-bak, eze, uste dabee, olgeeta guztiak diriala txarrak; ta beti bijotz siku, illun bategaz ez dabillenak, ezin Jaungoikua serbidu leijala. Oneek, ikusten badabee praile bat, edo monja bat, edo sazerdote bat, nosbait barre egiten, edo puska bat olgeetan galduba da. Ya ez dauka (oneen eretxijan) ez erlijinorik, ez Jaungoikuaren bildurrik, ibiltia ta olgeetia baino.

Bitzubak uts egiten dabee. Bada, ez olgeeta guztiak dira onak, ez guztiak dira txarrak edo pekatuzkuak. Errazuazko olgeetia ta dibersinoiak ez dau eragozten Jaungoikua serbidutia.

Juizijozko Erakusla guztiak autor dabee egija au. Santo Tomas, Eleisiaren erakusliak san Juan Ebanjelistiaren jazuagaz, ta Kasianogaz esaten dau: Lanian diarduban gorputzak nosbait atseen biar daben legez, alan arimiak bere nosbait sosegau, atseen edo arindu biar dabela bere nekia, gero gogo obiagaz ostera ekiteko bere zereginai . San Pranzisko Salesek beste ainbeste esaten dau. Ta ekarten ditu exenpluzat san Karlos Milangua, san Ignazio Loijolakua ta santa Isabel Ungarijako erregina , zeintzuk nosbait jokuan, edo beste gauza inozenteetan dibertituten zirian, Jaungoikuaren adiskide ta santu izatia atzeratu bagarik. Inos bere ez olgeetia ta inor olgeetan ez ikusi gura izatia, diñue santo Tomasek ta san Pranziskok, dala bijotz gogorraren, baso usainekuaren ta galdubaren señalia. Beti tiraan dagan arija, laster eteten da. Beti postaan dabilen zaldija, laster amaituten da. Ta beti gauza bati itxi bagarik darraikon gogua, buruba ta gorputza bere, laster galduten dira eurenez. Au ezaututa, erlijinoe santubeen burubak eta gurasuak, santu izatiari itxi bagarik, eureen erregeletan ta ordenetan ipini ebeen, batzuk geija-

go ta beste batzuk gitxiago, erlijiosuak eta erlijiosaak atseetako ta eureen neke egunianguak arinduteko denporia .

Esango dogu, santu andi areek ez ebeela euki zeruko argija? Edo, ez ebeela ezautu ebanjelijoko espirituba? Edo, ez zitubeela itxi medijo segurubak eureen erlijinoetan, gura dabena, santu izateko? Ezin esan ginai uts egite andi baten beian.

Ez da olgeetia edo dibersinoia artu biar opizijoz ta gogoz popuertzako lana edo zeregina balitz legez; ezbada gorputzari ta entendimentubari atseen eragiteko, ta gogo barriagaz ta animo geijagogaz bere egikizunari jarraituteko. Gurariz ta gogoz artuten badira olgeetaak, eurenz onak izan arren, olgeetako borondate laarregija gaiti, ez dira izango onak. Ta gitxiago edo geijago eragotziko dabee Jaungoikua serbidutia. Baina alako olgeetako apizinoia edo gurari laarregija ez da errazuazkua arimarako, ebanjelijo santubak eragotzita daukalako. Errazuazko olgeetiak esaten da, bada, ez dabela eragozten Jaungoikua serbidutia. Ez, aldia bateti edo besteti, erregelati kanpora dagan olgeetia gaiti.

### §. III.

## *Kristinauba alegere izatia ez da berez gauza txarra*

Ojala, mundutarrak ezautuko balebee egija onen indar guztia! Ojala, topauko balebee daguan lekuban alegrija egijazkua! Ojala, pozu txistarretako ur berdiai ta mingotxai itxita, juango balira bizitzako iturri gozoko ur garbijak ta pozgarrijak edaatera! Ejitoko kipula garratzai larga, ta Zeru-ko Mana gozua gustetara! Orduban ezautuko leukee kristinaubak, ze gozua, ze alegria ta ze atseginezkua dan geure bizitzia.

Ez da geure Jaungoikua ez zitala, ez urrija, ez prestubeza, ez tristia; ezbada arteza, zuzena, zabala, ugarija, bijotz nasaikua ta alegria, biar dan moduban aitu ezkeru. Ez dau Jaungoikuak kondeneetan alegere izatia ta umore ona eukitia. Konzienzija garbijak beragaz dakar, ez dakit zelako kontentu bat, poz bat, alegrija bat, ta esan ezin leijan bijotzeko nasaitasun bat eta libertade bat. Espiritu Santubak leku askotan

enkargeetan deusku Jaungoikuaren bildur santuba ; baina ez dau onek geure bijotzetati kenduten alegria egijazkua. Zeinbat lekutan Eskritura Sagradubak esaten deusku poztu gaitezala, konsolau gaitezala ta alegrau gaitezala? Zeinbat bidar Eleisa ama santiak konbideetan gaitu, alegere egotera? Ez dogu santubeen bizitzetan irakurten, mundubari bildur jakon tristeza larririk ta bijotz illunik. Bai, arpegijan agiri jakuen alegria ta poza. Beste askoren artian ene ama santa Teresa bat da asko, mundu guztiari alegere izaten erakusteko . Batek irago eukezan trabajurik andijenak ta luzeenak irago zituban santa Tere-sak, bai persekuzinoiak, gorputzeko gaisoak ta alaak, bai zeregin estubak ta andijak, bai penitenzijak, ta bai konzienzijako dudaak, kezkaak eta penaak. Baina bein puska baten baino, ez eban Santia inok ikutsi triste.

Sarri iragoten zituban santa Teresak gau osuak orazinoian negarrez zeldaan, edo koru baztar baten Jesus maitiaren aurrian , inok ez ekusala. Baina andi jagiten zan, inos pena bat irago ez baleu legez arpegi alegeriagaz. Sarri ebilen zilizijoz ta alanbre zorrotzez bere gorputz



birjina lotuta. Baina Teresaren bijotzian, arpegi-  
jan ta berbeetan ez eguan sekula tristeza illunik.  
Alegrija grazijosa bat da santa Teresaren marka  
agirija. Au berau errenta orde itxi eutseen eskri-  
biduta Santiak bere monjai ta kristinau guztiai.  
Esaten dau: alegere izatia dala debozinoiaren ta  
bijotz onaren señalia ... Poz artuten dabela bere  
monjaak alegere ikusijagaz... Bizi ditezala espi-  
tu alegeriagaz... Guztiekin tratau dagijeela, ta  
berba egin dagijeela modu oneko alegrijagaz...  
Maria de San Josef, Sebilako priorari kесеetan  
jakon santa Teresa, billanzikuak bialdu ez eutsa-  
zalako. *Bada nai dot nik, esaten deutsa, zeuben  
artian olgeetia ta alegreetia modu onagaz.* Luu-  
rrezko bijotz tristiak eta illunak ez dauka ain  
prestaera ona, Jaungoikuari leku zabala, nasaija,  
ta amodijozkua emoteko. Bijotz argija, samurra  
ta alegeria, pirmia ta sendua izan ezkerro, pres-  
taera obakua da milla bidar Jaungoikua serbidu-  
teko. Ez da emen ezer esaten, pekatu eginak ari-  
mara dakarren tristezia ta penia gaiti. Ta ain  
gitxi, pekatubak eta pekatuzko gauzaak mundu-  
ko zoruai emon oi deutseen kontentuba edo ale-  
grija gaiti. Pekatu eginak dakarren penia, Jaun-

goikua gaiti bada, arimia alegrau ta poztuten dabena da. Ta pekatubak dakarren poza ta puska bateko alegrija, egijazko tristezia, penia ta larrija baino besterik ez da. Pekatarijak alegere iruri arren, bijotza tristia ta illuna dauka. Alegere izatia gauza ona da: baina Jaungoikuagan ta Jaungoikuagaz, ez pekatubagan ta pekatubagaz.

Alegrija egijazkua gura dabenak, topau biar dau dagan lekuban: Jaungoikuagan, zeruko ondasunetan ta birtute santubetan. Beti izango da egiija, nosbait modu onian olgeetia, geure naturaleziak eskatuten dabena dala; ta bijotz triste illuna baino, argija ta alegeria berez, Jaungoikua serbiduteko, prestaera obakua dala.

## II. KAPITULUBA

- §. I. Jaungoikua opendidu bagarik, zelan olgau leitekian olgeetiaren beraren parteti.
- §. II. Jaungoikua opendidu bagarik, zelan olgau leitekian denporiaren parteti.

### §. I.

*Jaungoikua opendidu bagarik, zelan dibertidu leitekian, olgeetiaren parteti.*

Pekatu ez dan moduban zelan olgau leitekian esatera orduko, jakin biar da: kristinau bakotxak daukan legez aparteko etxuria, aparteko jenijua ta aparteko penseeta moduba, alan daukeela geijeenak aparteko gogua, bata gauza batian ta bestia bestian dibertiduteko ta olgeetako. Batzuk sinpleza bategaz olgeetan dira , komedi-ja baten edo zezenetan baisen ondo. Zesar Augusto , mundu guztiaren agintarija, umiak *donez ala parezka* olgeetan zan. Bianto , Lidiako erregia, ugarasijuak artuten. Domiziano , eulijak

ilten. Artajerjes erregia , gorubetan. Alan beste askok, ezer bere ez dirian gauzak artuten ditubee dibersinoetzat. Onako aparteko bakotxaren gogoko olgeetak gaiti, ezin erregela seguru bat imini legi. Izan leitekez onak, baita arin onak bere.

Juizijo on baten erregelapera ekarri legizan ta kasik geijenak nai oi ditubeen olgeetaak dira: *jokua, eitza, pasiua, soinuba ta dantzia*. Ta eurak examinau biar dira, zelan ez dirian txarrak.

*Jokua* da olgeeta bat, berez, inok bere konde- neetan ez dabena. Guraari laarregijagaz ta gogotasun bitzijagaz jokatuten bada, beti izango da paltia Jaungoikuaren begijetan, gitxiago edo geijago. Bakotxa bere laneetan kansauta daguanian, puska baten jokuan olgeetia, berez pekatu dala, ez dau inok esaten. Baina bagoz lege batzuk, jokuaren gainian gorde biar dirianak, ona izango bada.

1. Suerteko jokuak eragotzita dagoz lege guztietan, deskuido utsekuak dirialako.
2. Jokoko dibersinoia artu biar da denporia iragoteko, ez ango irabazija gaiti.
3. Jokoko ornidute, edo tantu bakotxian errial bat baino geijako jokatu-

tia, eragotzita dago Espainako legeetan abera-  
tseentzat ta guztientzat. Ta erriala bera eskuban  
dala, ez gero pageetakuan. Joko aldi bakotxian  
ogeta amar dukat baino geijago jokatu ezin  
legiz. Alan aginduten dau Karlos III. geure erreje  
jaunak, leenagoko geure errege jaun guztien  
jokuaren kontrako legiak onzat emonaz. Lege  
oneen kontra jokuan irabazten dana, atzera biur-  
tu biar da konzienzijan, maisurik jakituneenak  
dinuenez santo Tomassegaz. 4. Suerteko jokuaz  
gainera beste joku modu asko eragotzita dagoz  
sazerdote jaunai ta Eleisa gizonai. 5. Engañuzko  
jokuak beti dira txaarrak. 6. Eragotzitako leku-  
ban jokuan egitia, jokua ona izan arren, ez da  
ondo. Nai dabenak jokuan egiteko, etxia edo  
lekuba gau ta egun prest eukitia, pekatuzat kon-  
deneetan dabee erakuslaak san Karlos Milan-  
guagaz, inori pekatu eragiteko okasinoia dalako.

Esan dirian gauzeetan paltau bagarik, jokuan  
olgeetia ez da berez gauza txaarra. Erri batzube-  
tan egoten dira pelota lekubak ta bolaa lekubak,  
jentia dibertiduteko. Au gauza txaarra ez da.

*Eitza ta arrainkatzia* dira olgeeta inozentiak  
ta askotan probetxukuak. Etxeko zeregineen edo

osasunaren kaltian ez bada, libre dan denporan eitzian ta arrainak artuten olgeetia, ezin inok kondenau legi.

*Pasiua* berez ez ona ta ez txarra da. Askotan izango da ona. Buru nekatuba arinduteko edo osasunerako pasietia gauza ona da, ta askotan biarrekua.

Baina inok ukatu ezin legi, pasiuaren atxakijagaz gauza txaar asko egiten diriana. Gurasuak eta ugazabaak ez dabee lo egon biar, seme alabaak ta otseginak pasiora duazanian.

*Soinuba* da beste olgeeta bat berez inozentia. Edozeinek soinuba jo legi, pekatu egin bagarik. Aingerubak bere jo ebeen Jesus jaijo zanian. Zeruban bere joten dabee. Eleiseetan bere joten da. Soinuba joteko erramientak bardinak izan ez arren, soinu guztiak dira bardinak, orain tokeetan danez. Zein organuba, zein biolina, zein gitarrria, zein tanbolina, zein tronpia, zein sartain zaar bat, (baseerrietako bigireetan useetan dan legez) guztiekin joten da soinuba. Soinuba bada ona ta onerakua, joikijak bere onak dira. Soinuba bada pekaturakua, joikijak eta jotia bere peka-

tuzkuak dira orduban. Jobedi bada soinuba, jentia alegeretako, baina ez pekatuzko.

Soinubari oi darraiko dantzia. Soinubagaz ta dantziagaz egiten da piestia, sarauba, bigiria...

*Dantziaren* ganian gauza asko eskribidu dira. Dantziari bere izate utsian, edo oinakin soinubari zelan jarraituten jakon baino begiratuten ez jakola, mila abonu esan legiz bere pabore, ezertan paltau bagarik. Ta, jazo oi dan ta jazoten dan moduban begiratu ezkeru, mila maldezinoe ezarten jakoz errazoiagaz. Egijja da: Dantza galdubak nok zaintu asko daukeez. Dantzazaliak azala lodija daukee. Erremientarik zorrotzeenak dira motzak, pekatuzko dantzaak kenduteko. Tirorik zuzenenak ez dira itura elduten. Kolperik indartsu beenak airian geratuten dira. Au buruban sartuta euki arren, euskal-errijetan daguan baino ez jakite gitxiago egon dein pekatuzko dantzeen gainian, ta kristinaubak bitzi ditezan jakinaren gainera, pensau dot egijja batzuk argitara ateratia.

*Ta Dinot:* I. Dantzan egitia berez ez dala pekatu. Berez pekatu balitz, beti izango litzaateke. II. Persona batek bakarrian, nai gizionezkuak,

ta nai emakumiak dantzan egitia berez ez dala pekatu. Dabid Erregiak bere egin eban Arka santubaren aurrian. III. Gizonezkuak alkarregaz, emakume bagarik dantzan egitia, gauza txarra-gorik esan edo egiten ez dabeela, ez dala pekatu. IV. Emakumiak alkarregaz, gizonezko bagarik ta kanta edo soinu indezente bagarik dantzan edo pandangan olgeetia, ez dala pekatu. Aaronen arreba Mariak bere egin eban beste emakumeekin, soinuba jota, Faraonen esku gogorretati Isrrael librau zanian. Esan dirian modubetan dantzan egitia ta olgeetia, ez dau juizijozkok kondeneetan. Piloteak bere egin eukian, karidadia galdu bagarik; ta kristinau guztiak bere egin legijee. Katigu dagozan emakumiai eragozten jakue dantzan bakarrik egitia, seiña galduteko daukeen arriskuba gaiti.

Beste gizon ta emakumeen artian naaste egiten dirian dantzaak, zer ikusi asko daukee.

Jazo leiteke, nos edo nos, pekatu ez izatia. Baina esan legi alako dantzaak gaiti, ene ama santa Teresak eun guzurren arteko egijja gaiti esaten ebana: *ez da erraz, zinuan, eun guzurren artian egijja bat aparteetan*. Bada, ez da asko



errazago izango, gizon ta emakumeen naasteko dantzeen artian, pekatu bagako bat aparteetan. Ezin ipini legi ordu baktotxerako, leku baktotxerako, lagun baktotxarentzat ta dantza naastau baktotxarentzat erregela bat, nos dan pekatu mortala, nos dan beniala, edo nos ez dan pekatu esateko. Esanda geratuten da, zelan olgau leitekian Jaungoikua opendidu bagarik, olgeetiaren beraren parteti.

## §. II.

*Jaungoikua opendidu bagarik, zelan olgau leitekian, denporiaren parteti.*

Ibiltia edo olgeetia, berez izan ez arren txarra edo pekatuzkua, izan leiteke denporiaren parteti. Ta au modu bitara: edo denpora geijegi olgeetan iragoten dalako, edo eragotzitako denporaan olgeetan dalako. Denpora laarregijan irauten badau olgeetiak, izango da pekatu, edo mortala edo beniala. Gauza guztiak daukee eureen denporia, dino Espiritu Santubak . Ta olgeetiak bere euki biar dau bere errazuazko ter-

zijua. Kristinaubeen estadubak eta kondizinoiak ez dira bardinak. Opizijuak eta zereginak bere ez. Osasuna ta jenijua bere ez. Ta orregaiti ezin seinalau legi guztientzat erregela bat, olgeeta laarregijagaz, nos eta zetaragiño pekatu egiten dan esateko. Beti izango da egijia, Jaungoikuak ez gaitubala mundura ekarri, alperrerijan ta olgeetan bizitzia iragoteko; ezbada, bakotxak bere estaduban ta opizijuan biarra egiteko. Beti izango da egijia, errazoe zuzeneti aurrerako olgeetia, edo errazoiak ta estadubak eskatuten daben baino denpora geijago olgeetan iragotia, pekatu dala; beniala beti, ta askotan mortala. Beti izango da egijia, alperrerijak ta olgeeta utsak dakazala asmo txaarrak ta burutazinoe gaistuak. Beti izango da egijia, kaballeruak, aziendia goberneetako, erriai exenplu ona emoteko, ta arimaak santututeko; señooraak, etxeko gauzai kobru emoteko, seme alabei, ta otseginai dotrinia ta Jaungoikua serbiduten erakusteko, ta eureen arimai obeto kuidado egiteko; sazerdote jaunak, liburu onak irakurteko, Jaungoikuaren Berbia erakusteko, sakramentu santubak Jesu-kristoren izenian egiteko, ta kristinaubeen kon-

zientzietako dudaak erabagiten terzijo baten jakiteko; nekezarijak, opizialiak, prailiak, monjaak... Dinot: eureen estaduko zereginai kobru emoteko biar dabeen denporia, iragoten bada-bee oneek guztiok olgeetan, egingo dabeela pekatu. Oh, ze asko dirian, ta ze gitxi konpese-tan dirian onetariko pekatubak! Oh, ze gitxi esti-metan dan denpora santuba!

Olgeetia berez izan arren ona, izan leiteke txaarra, eragotzitako denporaan dalako. Agiriko olgeetak eta dibersinoe publikuak eragotzita dagoz domeeka ta jai osuetan, meza nausitako, sermoetako, bisperetako, prozesinoeko, ta Alta-rako Sakramentuban Jesus agirijan daguan arte-ko denporeetan. Olgeetia edo dibersinoia ino-zentia izan arren, eragotzitako denporaan bada, malezijaz jazten da. Erri guztiaren onerako Elei-saan zeregin santubak egiten dirian artian, ez dau Eleisa Ama santiak parkatuten agiriko olgee-tarik. Dinot: *agiriko olgeetarik*. Ez, ezkutubeta-kuak, etxezulo edo tabernetakuak ontzat emo-ten ditubalako, ezbada, oneek erremedijau ezin-da, areek eragozten ditubalako. Ez da a olgeeta-ko denporia, ezbada tenplu santuban Jaungoikua

alabeetako denporia. Ta tenplura juan ezin danak, bere etxian edo egon lekuban Jaungoikuari grazijaak emoteko ta miserikordijak eskatuteko denporia. Irakurri bitez Eleisiaren batzaarretako erregelaak . Inozenzio XI. garren, Aita Santu Erromakuaren ta kristandadeko errege jaun askoren ordenaak, ta guztietan ikusiko da, ze gauza txarra ta Jangoikuaren gorrotokua dan, alako denporaan olgeetia.

Beste ainbeste esaten da, nai Eleisiaren burubak kristinaubai, nai juezak bere agindupekuai, nai ugazabaak otseginai, nai gurasuak umiai eragotzita daukeen denporaan, olgeetia gaiti. Bada, oneek guztiok daukee eskubidia, bakotxak bere lekuban, aginduteko; ta aginduban dagozanak, obeidu biar deutsee errazuazko ordeneetan. Ninibetarrak egin ebeen legez . Ebanjelijo santubak aginduten deuskuna, arina, biguna, erraza ta alegeria da, Jaungoikua amee-tan dabenarentzat . Gorde bedi lege santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza guztiak biurtuko dira geure onerako, geure konsuelorako ta alegrija egijazkorako.

### III. KAPITULUBA AMAIJA

*Plazeetan gizon ta emakume naaste egiten dirian dantzaak, abemarijetan tanbolina isilduta amaituten dirianak, Euskal-errijetan usetan dirian moduban, pekatu mortaleko okasinoe urrekuak dira.*

- §. I. Plazako piestarako jentia zelan presteetan dan.
- §. II. Plazako piestia zelan egiten dan.
- §. III. Eskritura Sagradubak ta Eleisiaren Gurasuak naasteko dantzaak gaiti dinuena.
- §. IV. Teolojija sagradubaren erakuslaak ta errazoiak eurak gaiti dinuena.

§. I.  
*Plaza-piestarako jentia zelan presteetan dan.*

Ez da asko aobetian esatia: *plazako naasteko dantzaak, abemarijetan geratuten dirianak, tan-*

*bolina isilduta, useetan dirian moduban edo egiten dirian moduban, pekatu mortaleko okasinoe urrekuak diriala, errazoiagaz probeetan ez bada. Onetarako popuerzakua da examineta: zelan useetan dirian edo egiten dirian, ta Espiritu Santubak, Eleisiaren Gurasuak, erakuslaak ta errazoiak eurak gaiti zer dinuen; ta despeidaan dantzarijen errazoiak ze entzute mereziduten dabeen. Au eginagaz urtengo dau berekautan legez goijan imini dan amaijak edo *konklusioiak*, nire eritxijan. Errazoe argijagua ta jakiturija altubagua daukeenak ezautuko dabee, ondo ataria dan edo ez. Amaijari duda guztia, edo aituten oi ditubeen atxakijaak kenduteko, esaten da: *Plazaan argitan tanbolinagaz egiten dirian naasteko dantzaak, abemarijetan tanbolina isilduta geratuten dirianak, Bizkaijan ta euskal-errijetan useetan ta egiten dirian moduban, diriala eurenez pekatu mortaleko okasinoe urrekuak.* Bardin esaten da beste modu baten: *Dantzan egitia berez pekatu izan ez arren, euskal-errijetako piesteetan egiten dan moduban, pekatu dala.* Nai beste modu baten: *Jazo oi danez, pekatu mortalaren beian daukeela kristinaubak obli-**

*gazinoia, esan dirian dantzeetati apartetako. Edo beste baten: Al daijan guztian, esan dan piesta dantzara juateko borondate presta ta gogua ezauberaz daukanak, ta juan ezin dalako peniagaz geratuten danak, okasinoe atan sartutia konsentiduten dabenian, egiten dabela pekatu.* Despeida edo konklusinoe oneek guztiok batera joten dabee, edozeinek dakusen legez. Gogoratu daigun, bada, zelan jentia presteetan dan euskal-errijetan piestarako, ta gero zelan egiten dirian.

Onetarako zurtu belaarriyak, argitu begiyak, ta ezautu zeuben pekaturik geijenen erne leku-ba. Plazako dantzara duazanak, luxurijaren suba garretan eukiteko geirik presteenak batuten ditubee eureetara. *Edadia, edana, jantzija, nasaitasuna ta estaduba.*

I. *Edadia.* Plazaan tanbolinagaz dantzan egiten dabeenak, bai gizonak ta bai emakumiak, amazortzi urteti berrogeta amarrekuak dira. Egon leitekez gaztiaguak ta zaarraguak bere; baina gitxi. Plazako piestia darabilleenak, dira, esan dan edadekuak. Mundu guztiak daki, edade atan ze zeregin ta lan andija dan, ixiokija subari

urreratu bagarik bere, luxurijaren tentazinoiak goitutia. Ete dira dantzaari oneek Sanson baino senduago? Dabid baino santubago? Salomon baino jakitunago? Areek okasinoe txikijaguan jausi zirian.

II. *Edana*. Piestara duazanak, piestia erdiz erdi daneko, trago bat edanda dagoz; bai gizon-  
nezkuak, ta bai emakumiak. Ez dinot ordituta dagozala, ez bada ardaua edaateko eria guztiak edo geijeenak euki dabeela. Geijenak edo guztiak gitxi edo asko edan dabeela. Ta areetati askok biar leukeen baino geijago bere bai. Eurak esan oi dabeen legez: *Ya puska bat ardauek alegeretuta*. Mundu guztiak daki, bada, ardao puska bat edanak, ta endamas zerbait geijago edanak, errazoia illundu, gogua alegeretu, odola berotu ta luxurijaren suba biztu eragiten dabena. Ta endamas gitxitan edaaten dabenari.

(...) III. *Jantzija*. Plazako piestara eruaten dan jantzija da ainbat ederreena ta edertuen iminija. Ainbat onduen buruti biatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta, al dagijanak larrosia, kabelinia, ispliguba, edo beste bedar usain gozoko bat buruban, paparran edo esku-



ban dabeela, juaten dira plaza piestara, bai gizonak ta bai mutillak, bai andraak ta bai neskaak.

Dinot, *neskaak*, ez kondubagako emakumiak gaiti, neskatillaak ez esatiarren. Bada, neskatilliaren izenak, guztiak ondo dakijeen legez, bera-gaz dauka errespetua, modestija, onestidadia ta lotsoorra izatia. Ta modu atan piestarik piestara ta dantzarik dantza gizon esku artian likinduta dabilzan emakume ezkondu bagakuak, ez daukeen legez ez lotsarik, ez modestijarik, ez onestidaderik, ezin emon legijue egijazko errazoian *neskatilliaren* izen ondrauba, ez bada neskiaren izena. Ez jako beliari usua esaten, ez bada belia.

Dinot, bada, piestara duazan guztiak diriala ainbat onduen apaindubak; guztiak bakotxari ta bakotxak guztiai ondo begiratu dagijuen, eretxi dagijuen ta amau dagijezan. Au autor ez daben dantzaaririk ez dago piestaa, egija esan gura dabenian. Ta ez da gauza jakina, plazako apaindurijak ta gorputza ondo prestaubak luxurijari sarri dei egiten deutsana, ta su geijago emoten deutsana?

Ez da orain ezer esaten arako, edo bularrak berarjaz jasota, edo armatuta, edo paparra agi-

rijan, edo besuak bilosik, edo bilosik baino ez asko obeto daroiezan neska edo andraak gaiti. Dirianak diriala, koru loijagokuak dira oneek.

IV. *Nasaitasuna*. Dantziari ta piestiari jarraituten deutseenak, beste mandamentubak bere ardura gitxigaz austen ditubeenak. Konzienzija nasaikuak. Begiratu errazoe onetan. Orrako plazako piestetara uts egiten ez dabeenak, dinot, diriala pekatubaren bildur gitxi daukeenak. Bidao bat edo juramentu bat alperrik egitia; meza bat ondo entzuten ez jakitia; erdi entzuan edo ondo entzun bagarik geratutia; jaijegin santubetan jokuan, tabernaan, dantzan edo errietaan egunik geijena ta gau zati bat iragotia; umiai aziera galduba emotia; gurasuak gaiti gura dabeena umiak egitia; justizijari ta kura jaunai lotsarik ez artutia; inori ezer ez parkatutia; edozein gaiti deungaro esatia; urtian bein, edo birritan, ta orduban zelanbait baño ez konpeseetia; sarrijago konpeseetan dirianai, Eleisako zeregin santubetara juaten dirianai, ta, eurak legez, nasai ez dirianai, barre ta burla egitia; Jaungoikuaren berbia edo sermoeetan esaten dana, txanzatzat ta barregeitzat artutia; berbee-

tan ta egitadeetan, elduten dirian leku guztian, berdetasuna ta indezenzija erakustia... Nasaitasun au guztiau, dinot, edo, obeto esateko, pekatuteki au guztiau ez eskrupulutzat, ez konpesakizuntzat bere artuten ez ditubeenak, dira, plazaan piestia egiten dabeenak.

V. *Estaduba*. Juaten dirianetati, geijeenak dira libriak. Ezin ukatu legi, arrisku geijago daukeena edade atako persona libriak, bai gizonezkuak ta bai emakumiak, arimako ta gorputzeko onestidadia galduteko. Egija da, gizon ezkondu batzuk bere bagoz, zaartuta, buruba urdinduta euki arren, gaztiak baisen berdiak. Areek bere inundi al badagijee, piestaan izango dira. Ta parian iragoten dan neska bati, geijago ezin badabee, makiliaren puntiagaz bada bere, zabalduko deutsee luxurijaren atsa, sarritan ikusten dan legez. Emakume ezkonduak bere bagoz, inoren upako ardua edaaten dabeenak, askoren karinuari bijotzian leku emoten deutseenak, ta zaartzan, besterik ezinda, ezkontzagintziari emoten deutseenak. Areek bere, oina jaso al badagijee, an izango dira piestaan begi zolijakin. Berbeeta onetan ezer geituta ez daguana, pies-

ta zale guztiak dakijee. Ta egija esateko lekuban, au ta geijago eurak autor dabee.

Emeti ateraten da kontuba, ume kondo batzuk apartau ezkerro, beste plazara piestia egi-tera batuten dan jentia, dala, luxurijazko gauza loijai inos gogua illundu ez deutseenak. Kastidadia galduteko tentazinoe bat Jaungoikua gaiti bakarrik goitutia zer dan ondo ez dakijeenak. Desonestidateko eskolaan atzijak ta ibilijak; edo atarako presteetan dirianak, bai ezkundubak ta bai alargunak, bai mutillak ta bai neskaak ta bai beste estadukorik badago bere.

Egijazko examina onetati ezaututen da argi-ro: Piestara duazanak, diriala, luxurijaren surik geijeen daukeenak edadiaren parteti. Luxurijazko gauzeetara gogua geijen konbideetan dabeenak apaindurijaren parteti. Kastidadia galdubak penarik gitxien emoten deutseenak, konzienzija nasaijaren parteti. Ta kondezinoa berdekuak, estadubaren parteti.

Begoz, bada, orain puska baten plazaan tanbolinagaz, esan dan moduko eun, berreun, lau-deun, edo geijago gizon ta emakume, sartue-raan trago bat artuten, edo alkarri karinozko

ezauberia emoten, beste plazako dantziari ta piestiari berez legez, darraikozan gauza batzuk gogoratuten ditugun artian.

Piesta zaleentzat ez dago piesta eguna baino priesakuagorik. Orduban dira, goix parteti etxe biarrak gaztiak egitia. Egun atako ta askotan bijamoneko ganadu jaatekua etxera batutia. Painueluak jaboneetia, almidootutia; oinerako ta gorputzerako jantzijari puntubak artutia, kaeleetia... Guztia da priesia piesta eguna, arrastegijan piestara juatia gaiti. Ta geijenian (ta endamas baseerrijetan) aginduten deutsee gurasuak eta ugazabak gaztai piestara, jai osua izan arren, onako ta alako zereginak eginda andi aurrera, gura badabee. Piesta zaliak egun atan, mezatan eleisaan egon arren, mezarik entzun ez dabeela sinistu ginai, juzgu gaistorik egin bagarik, gogua beste ardureetan euki dabeelako. Itandu bekijue ondo ta eurak esango dabee.

Asko juaten dira piestara, gurasuak nai ez dabeela. Beste asko, aita edo ama eurai bidaoka dagozala. Beste asko, etxeuak (endamas aitak) ez dakijeela, ixilik egindako jantzijagaz. Nundi eta zelan oi dirian piestarako jantzijak eta galaak

emakume askoren soinian, sobre daki mundubak. Bada, gauza jakina da, guraso ta ume askoren arteko bake txarrak, asarriak, bidauak ta, eurak esan oi dabeen legeez, inpernukuen bitzitzia etxian diriala piesta madarikatubak gaiti. Gurasuak umiai nai dabeen piesteetan ta nai dabeen lagunakin, gau ta egun ibilten isteen ez deutseelako. Ta gura leukeen soina egiten ez deutseelako. Ez dira gauza onek aaztu biar, piestako dantzeen gainian berba egiteko.

Beste asko juaten dira gurasuen borondatiagaz ta etxian egindako jantzijagaz. Baina alako gurasuak, eurak bere piestarik piestara ibili zirianak, edo oraindino dabiltzanak. Desonestidadeko eskolaan atzijak, ondo eldu bagakuak, zaartuta bere berdiak. Ta gurasuak zelakuak, umiak alakuak. Aita berdiaren semia berdia. Ama loijaren alabia loija. Alako guraso galdubak, agineetati ura darijola, itanduko deutsa arratsian alabiari ia dantzara zeinek eruan daben. Loba barriarik etxera ez badakarree, beste desonestidade guztia umiak erabili arren adiskide txarrekin, ez jako alako gurasuari kolorerik mudauko. Umiak pekatu mortalien egon arren, ez deutsee ardura,

plaziagazkua ta mundubagazkua egin ezkerro. Dinodan guztia egijia dana ezaututeko, inok dudarik badauka, kontu imini begi, ta ikusiko dau: Seme alabai ta otseginai piestetara ta naasteko dantzeetara juateko libertadia ardura bagarik emoten deutseen gurasuak ta ugazabaak, edozein lagun artetan esaten ditubeela berba desonestubak ta lotsarizko errazoiak, ta egiten ditubeela, arei darraikuezan azalckerija berdiak. Ez da beste testigantzarik biar, areek zer izan dirian, ezaututeko.

Aparteko arduria euki dot beti, piesta ta dantza zaliai dotrinia itanduteko. Ta ez dabee sinistuko probau ez dabeenak, ze palta andija daukeen. Ez dakijee geijeenak, salbetako biar dabeena. (Dei egiten jako emen kura jaunen ta konpesore jaunen zelo santubari). Au gaiti bigarren, irugarren, laugarren, bostgarren, seigarren ta zortzigarren Jaungoikuaren agindubetan pekatu mortaltzat edo illgarritzat Eleisako jakitunak erakusten ditubeen ta eurai jagokuezan gauza asko, txotxakerijak ta sinplezaak diriala, uste dabee piesta zale askok. Ez daukeez konpesakizuntzat bere. Oh, ez jakinaren sail madarika-

tubak! Plazako piestiari errioneetan berez legez darraikozan gauza oneen ondorik, ikusi daigun, zelan egiten dan plazaan piestia.

## §. II.

### *Plazako piestia zelan egiten dan.*

Abemarijeetan tanbolina ixilduta, geratuteko piestia da, emen examineetan dana. Oh! Au piesta santuba da, esango dabee dantzazaliak. Ta pensau legi zerbait, geijago ez dakijanak. Baina Bizkaiko ta Probinziako piesteetan au ta utsa bat dira. Bideetako etxiak, zelaijak ta sasi onduak ateraten dabee plaziaren paltia. Ta neska baten tronpiak edo soinubak tanbolinarena. Ezpabere esan dagijeela, tanbolina abemarijeetan isildu arren, zeinbat juaten dirian etxera gabak denporaak emon bagarik. Geijeenaz bere, inok kasurik egin ez deutsan neska epel bat, edo mutil makal bat. Beste gitxi. Ta nos palta dira piesta egunian plazaan, gabak ordubak emonda bere, gizonak eta emakumiak? Nun daukeez etxiak ta noragino juan biar dabee, abemarijetan



tanbolina ixildu arren? Ah! Au edozeinek daki. Estalgi txaarra da, piestia ontzat emoteko, abemarijeetan tanbolina ixilduten dala esatia, Bizkaijan ta Probinzian. Justizijak bere au erremedijau ezin legi. Etxeetan bai asarre andijak, ta pekatu mortalera elduten dirian okasinoiak ta eskandalubak, askotan, auzuak igarten deuseen terzijuan, gurasuen ta umeen artian, piestati berandu etxera jua dirialako.

Gomuta onegaz guazan plazako piestiari begiratutera. Ez jente pilluari mordo baten, ez bada gauza onerako edo txaarrerako jazoten dan moduban. Teolójija sagradubak gizonaren borondatezko egitade bakotxari begiratuten deusnan moduban. Begiratu daijegun bakotxari banaan, edo binaan, edo irunaan, dagozan moduban ta dabiltnan moduban. Ia zer egiten dabeen; ia zer esaten dabeen. Ta zer ikutsiko dogu plazako jente pilluaren artian? Dinot arima arimati; lotsa nasala eskribiduten. Baina agiriko pekatubak dira, ta esan biar dira. An ikusten da, edade arriskukuak, ardauak, apaindurijak, konzienzija nasaijak, ta oitura desonestubak daukan luxurijaosua. Ikusten da: dantzia ez dabilen den-

poraan, neska bat, bi edo iru, mutil bategaz, bigaz edo irugaz alkarri eskubak solbardaan edo... iminita, berbeetan ta maitekerijeetan dagozala. Baina zer berba? Arimiari ondo gura deutsanak, alboti bere entzun biar ez ditubanak. Ta ze maitekerija? Eskubakin, begijakin ta arpegiko jeriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Ikusten da: dantzia asi dedinian, neskaak armatura dagozala, abijan goserik daguan txorija amaren janarijaren zain legez, nos nok dantzara eruango ete dituban, goguan daukeen leunkerija ondo erakusten dabeela. Erri batzubetan neskaak asten dabee ta kunpliduten dabee mutilez edo gizonez dantzia. Itzhusijago ta lotsa galdukuago baino ez da. Ikusten da: dantzarako eskejuakozan andriari edo neskiari, egiten deutzazala milla azinoe ta menio indezente, daroianak, bai eskuti oratuten deutsanian, ta bai dantzariari entregeetan deutsanian, neskiaren edo andriaren aurrian saltoka, txiko ezi bagako edo baso asto batzuk dirurijeela. Ta zeinbat indezenzija geijago egiten deutseen, ainbat dago neskia pozagorik labankerijaren ta likinkerijaren bitsa darijola.

Modu onetan plazaan dantzia kunpliduten da. Dantzia kunpliduta laster, tanbolinak esaten dau: *Nai dabenak nai dabena egin dagijala*, naastia, arin aringia, arrebatua ta pandangua joten ditubanian. Ya dagoz dantza atan gizonez-korik edu emakume, edo mutilik edu neska. Guz-tiak, esan dan legez, onestidadia galduteko ondo prestauta, eskuz esku alkarri oratuta, naaste mutil biren erdijan neska bat dala, noren seme edo alaba dirian, asko gomuta ez dabeela.

Tanbolinak dino: Gura dabenak gura dabena egiteko orduba dala. Ta egijia esateko, eguzkijari begira bertan pekatu egingo ez badabee, beste desonestidade guztia lotsa bagarik airian darabilee dantza atan. Naaste atan entzuten dan ta ikusten dan guztia, da luxurijaren suba ta keia. Batian, dantza luzian arin aringa gorputza-kin alkar joten. Bestian pandangan nos arpegi-jakin, nos besuakin, nos sabeleekin, nos albuakin alkar ez joko, bai joko neska ta mutil, menio desonestubak ta lotsarizkuak geratu bagarik egi-ten deutseezala alkarri. Ta bestian, kazubelaan erlia legez, mordo baten gizon ta andra naaste. Ni esaten azartuten ez nasan ezaintasunak, alka-

rri egiten deutseezala. Neskaak eurak bere, alakuak izan arren, askotan koloriak gorrituta urteten dabeela, andiskotiak dirialako mordo atako pekatubak jente arterako. Dantza atan esaten dirian ta entzuten dirian berba banakaak desonestubak. Begirakuniak eta alkarren jeraak desonestubak. Mosu egiteko ta oratuteko menuak ta oratutiak desonestubak. Gorputzakin alkar jotiak desonestubak. Oinakin magal jotiak desonestubak. Esku estututiak desonestubak... Ta au guztiau dantza bakotxian geratu bagarik neskaak mutilai ta mutilak neskai. Zeinbat gabarren urrago, ainbat ezainago, nasaijago ta zatarrago dantza bakotxa. Dantzati urteten dabee sarritan neskaak, eureen iruneko zapijak askatuta ta burukuak okertuta, ikusi bagarik sinistu ezin legijan moduban. Askotan dantza arinian, oin bijak laban eginda, plaziaren erdijan jausita geratuten dira andrazkuak, inok begiratu biar ez deutseen moduban, eskuti dautsanak, kolpez jaso artian; ta jente guztia arixe begira txaloka. Dantzaan sartuten ez dirianak, edo dira, lutubak daukeezanak; ta areek bere gogoz an dagoz. Edo dira, zaar ibilli ezin dirianak. Oneen kondezi-

noia esanda geratu da. Aguraak badira, ordituta asko. Atsuak badira, ta endamas seme alabaak an daukeezanak, azerija ollua jaaten baino pozagorik dagoz plaza baztar bateti edo bentana zulo bateti dantziari begira arrastegi guztian kansau bagarik. Edo dira, sein a egiteko andi dagozanak. Oneek bere borondatez dantzaan dagoz. Baita batzuk gorputzez bere okotzeraginoko sabelagaz justizijaren lotsa arin onian ta naturaleziaren desondraan. Edo dira, dantzara inok eruan ez ditubanak. Oneek enbidijaz ta zeloz murmuretan ta ernegeetan dagoz, inok aintzat artu ez ditubalako. Ez dabee bein bakarrik topau neskaak dirubagaz, dantzara nok eruan. Edo dira, adiskide maite bategaz bakarrian astirotxubago egon gura dabeenak, bestiak dantzan dabilztan artian. Oneek bere ya ezautubak dira, zer dirian. Beste guztiak dantzan dabiltz.

Dantziaren despeidaan edo amaijan, askotan edo geijeenian, mutila dua, dantzan erabili daben neskiagaz, ta dagoz alkarregaz beste dantzara artian, endamas bere debozinoekua bada, prutia edo erroskaak artuta. Areek dantzaan berotuta, karinua alkarri erakutsita, dantzara

eruan dabeelako, neskiak mutilari esker ona karinoz emonda, bakarrian zer esango dabeen ta zer iragoko dabeen, pensau begi, alako ordu-been barri obeto dakijanak. Abemarijeetan geratu dedilla tanbolina. Ez, geratu oi dalako piesta egunik erdijeetan ta gitxijagotan bere. Baina izan dedilla alan. Bada, despeidako jentiaren urteneria da guztien aazkarrija. Guztiak daku-seela ta dantzubeela, egiten dira urtenera zikin atan neskeen ta mutileen artian, nok nori asko ez dakijala naastian, tokamentu loijak, oratute loijak, mosuka loijak, eskuka loijak, pekaturako konbit erabagijak ta beste luxurijaren asmuak topau dituban ta esan legizan berdekerija altubak, klarubak ta zatarrak. Neska batak egiten dau garraasi bat. Bestiak siliyo bat. Bestia asarratuta, asten da lotsagalduko diadarka. Bestiak bardin egiten deutsa bidao bat, oratu deutsan mutilari edo gizonari, ordukua ya guztizkua dalako. Alan duaz plazati etxeruz aldi baten naastian ta morduan ajuika, diadarka, barreka ta oratuka, luxurijaren pestia ta atsa darijuela, bakotxa bere

lagunagana ta bidera batu artian. Etxia urrinago daukeenak, urteten dabee, oi danez, leenago plazati. Urraago daukeenak, berandubago. Baina gabak ordubak emonda bere, ez dira palta, ez plazaan ta ez bideetan neskaak eta mutilak. Piestati etxeruz nekez dua inor bakarrik, ordiren bat ez bada. Geijenian neska bat ta mutil bat alkarri eskuti edo samati oratuta. Edo neska bat mutil biren erdijan; edo mutil bat neska biren erdijan, alkarri dautseela, esan dan moduban. Ta geijeenak, aurrekuak ondorenguai ta ondorik duazanak, aurrerago duazanai, burla desonestubak alkarri egiten. Neska bat, mutil bat albuan ez dabela, piestati etxera nekez. Areek bidian illunian (bada abemarijeetan tanbolina ixilduzanian, plazati urten ebeen leenenaz) edo legua bat bidian, edo legua erdijan, edo geijaguan etxeetara artian zer egin al dagijeen, amar urteko umiak bere bakijee.

Kale barruko dantzarijak ez dira segurubago geratuten eureen tanbolin egunetan, bestiak baino. Ta onen errazoia emongo da zortzigarren

errespuestaan, emen esaten danaz gainera, itsuba ta gorra ez daguanak aituteko ta ezauteko terzijuan.

Ara emen, zelan egiten dirian plazeetako piestaak. Ezer bere ez dot esan, geituta. Bai asko gitxituta, zatarkerija desonestu guztiak paperian ez imintiarren. Geure errijeetako piesta bat edo bi asi ta amaitu kontuz ikusi ditubanak, ta euskal-errijeetako jentiaren ta etxeen barri dakijanak, ez deust ukatuko, esan dodan berba bat. Piestetan sarri gogoz ibili dana bada, esango dau: daukeen baino etxura obia emon deuseedala. Ta ez dira emen kontuban sartuten, dantzia emon jakuelako edo emon ez jakuelako, kopradijeetako ta alboerrijeetako jentia atera oi dituban okasinoiak, gorrotuak, bengantzaak, burrukak, makilakaak ta gizon illtiak bere bai, izan arren kasik piesta guztietan gitxiago edo geijago. Itxi dagijeegun, bada, tertzijo onetan Plazako Dantzai. Ta ikusi daigun, Espiritu Santubak ta Eleisiaren Gurasuak zer dinuen naasteko dantzaak gaiti.



### §. III.

## *Eskritura Sagradubak eta Eleisiaren Gurasuak naasteko dantzaak gaiti dinuena.*

Leku askotan esaten deusku Eskritura Sagradubak, ze kondizinoetakuak dirian naasteko dantzaak. Ez da nire gogua, guztiak ez eze gitxiago bere emen imintia. Testamentu zaarreko ta barriko liburu guztietan dagoz sentenzija edo esan era batzuk, pedia daukan kristinaubari ikara eragin legijueenak. Irakurri bediz Job, Isaias, Daniel, Salomon, Ebanjelijua ta san Paulo, ta eurak kenduko deutsee, salbau gura dabena-ri, okasinoe galdu areetan ta arei darraikuezan pekatu inpameetan sartuteko gogua. Esan bat edo bi gogoratuko ditut, geure plazeetako dantzeen sarija ondo autor dabeenak. Dino Espiritu Santubak leku baten: *Ganadu aldriak legez, urte-ten dabee pekatarijeen umiak soinubagaz; dantzan ta saltoka dabiltz soinubaren otsian; eureen egunak iragoten ditubee alegere ta pozik, ta istante baten jausten dira inpernura. Et in punc-*

*to ad inferna descendunt.* Beste leku baten dino: *Emakume dantzaarijaganik apartau zaite, bere artia gaz ta enkantubagaz galdu ez zagizan. Ne forte pereas in efficacia illius.* Beste batzuk irakurten dabee: *Kantaarijaganik.* San Ziprianoren eritxijan bijak, emakume dantzarija ta kantaarija bardinak dira, gizonak galduteko. Beste leku baten dino Espiritu Santubak: *Siongo alabak ibili ziriala, eureen burubak jasota, samaak armatura, apainduta begirakune maiteetan eskubakin txaloka ta oinakin dantzan. Alan ibili dirialako, Jaungoikuak kenduko deutseezala Siongo alabai eureen apaindurijaak, mutilduko deutseezala eureen burubak, ta emongo deutseela buruko apaindurijaren lekuban kalba gorrija, loreen lekuban atsa, ta zinteen lekuban kordelak ta zilizijua.* Eskritura Sagraduko leku oneetan (beste jazo ta esan askori itxita) geure piesteetako dantza madarikatubak Jaungoikuaren gorrotua ta zamaija eureen gainian daukeena, edozeinek dakuts.

Naasteko dantza inpameen gainian Eleisierren Gurasuak ta santubak dakarreezan errazoe asarriak, esatez amaitu ezin legiz. San Juan Kri-

sostomok esaten dau: *Dantza nasaija dagan lekuban, dago diabruba. Ez eutskuzan Jaungoikuak oinak emon, dantzan egiteko; ez bada modestijaz pausu egiteko. Piesta orreetan diabrubak dantzan egiten dau; ta demoninuen aguazillak engaineetan ditubee gizonak... Oraingo dantzeetan ez jako samia ebaten san Juan Bautistari; baina illten dira kristinaubeen arimak. San Efrenek dino: Ez dedilla inor engainau. Inok bere ezin serbidu legizala ugazaba bi. Inok bere ezin legijala Jaungoikua serbidu ta diabrubagaz dantzaan egin... Dantzia dagan lekuban, dagozala okerreriya guztiak. An daguala emakume galdu lekuba, aingeruben tristezia ta diabrubeen poza ta piestia. Goxian eleisan ta arratsaldian dantzan diardubana, goxian Jaungoikuagaz ta arratsaldian diabrubagaz daguala. San Ambrosiok, san Ziprianok ta Tertulianok geijago eskribidu ebeen piesta galdubeen ta naasteko dantzeen kontra. Geure errijetako piesteetan ta dantzeetan ikusten da, areek kondeneetan ditubeen pekatubak ta okerreriya. San Ambrosiok dino: juizijua ta modestija daukanak, ez dabela dantzan egiten... Adulterijuaren alabia dala, dantzan*

*egiten dabena... San Ziprianok dino: Ze zorakeri-  
jak artu ete ditu kristinaubak... demoninuak  
asmautako dantza loijak, onak diriala esateko?*  
Santo Tomasek dino san Agustinegaz: *Domekee-  
tan ta jai egunetan dantzan egitia, pekatu andi-  
jagua dala, soluan nabasen edo etxian gorube-  
tan egitia baino. Obeto gordeko ebeela, (edo  
pekatu gitxiagogaz) judegubak zapatuba naba-  
sen edo gorubetan eginagaz, dantzan eginagaz  
baino.*

San Basiliok dino naasteko dantzeetan dabil-  
tzan emakumiak gaiti: *Zeintzuk gaiti negar egin-  
go ete dot? Ala ezkondu bagakuak gaiti, ala  
ezkondubak gaiti? Ezkondu bagakuak birjinida-  
dia galduta, biurtuten dira etxeetara. Ta ezkon-  
dubak ez deutsee kastidadia gordeetan senarrai.  
Bada, dantzan dabiltzan emakumeetati, banaka-  
ren batzuk geratuten badira gorputz osuagaz  
(pornikau bagarik), areek bere arimako kastida-  
dia galduta, loituten dira. Santu onen eritxijan,  
nos kontauko ete zituban Eleisa Ama santiak,  
edo nos iminiko ete lituke birjineen artian, erri  
oneetako piesteetan ta naasteko dantzeetan ibili  
dirian emakume libriak, gero santa andi egingo*

balira bere? Bada, dinuanez, inok ezautu ezin legizan banakaak baino ez da geratuten gorputz osuagaz. Ta areek bere arimako kastidadia galduten dabee dantzeetan. San Antoninok dino: Dantzarijak diabrubari bidia presteetan deutsee-la, diabrubagaz inpernuban agertuko diriala... Soloko koko saltokarijak laboria galduten daben legez, emakume dantzarijak arimaak galduten ditubeela... Dantziak inpernuko pozuti urten dabela... Inpernuko labati kee atsitubak urteten daben legez, naasteko dantzeetati luxurijaren subak urteten dabela... Gizon ta emakumeen naasteko dantzia demoninuak darabilela, arimak galduteko... San Karlos Millango obispo andijak ta giza aldi oneetako Eleisiaren argijak liburu oso bat eskribidu eban dantza naastekuen kontra emeretzi kapitulugaz ta amairu *konklusinoe* edo amaigaz. An erakusten dau Santubak Eleisako Gurasuen, jakituneen ta errazoiaren goitute osuagaz, esan dirian naasteko dantzai jarraitutia pekatu mortala dana. Ta dino: *Naasteko dantzaan oi dan nasaitasunari ta okasinoiari begiratu ezkeru, ez dauka inok zetan pensau, estubak*

*gariala, naasteko dantziari jarraitutia pekatu mortala dala, erakusten dogunian.*

Au da Eleisiaren Gurasuen berbetia naasteko dantza galdubeen kontra. Ez zirian Guraso santu ta zeruko dotriniaren erakusla jakitun areek, geroko eskolau batzuk legez, dantzaak *per se* ta *per accidens, secundum se* ta *per abusum, in genere suo* ta *per malitiam* erabagiten ibili. Ezbada begiratu eutseen gizon ta emakumeen arteko naasteko dantziari, giza aldi guztietan jazo dan moduban, jazoten dan moduban ta jazoko dan moduban, (egiten bada) Adanen seme alabaak bitzi dirian artian. Au ondo ezaututa, ondo sinistuta, Jaungoikuaren mandatari areek eureen liburubeetan esanda itxi ebeen kristinau guztienzat naasteko dantzaak gaiti, ordikerija, gorrotua, murmurazinoia, soberbija, batioukatutia, sakrilejijua, luxurija, pornikazinoia ta beste pekatu ezainak gaiti esan ebeen baixen deungaro. Gizon ta emakumen naasteko dantziari esaten deutsee Eleisako santubak berbaan berbaan: Inpernuko pozuba, Babilonijako labia, errijetako pestia, pekatu guztien erne lekuba, luxurijaren eskolia, kastidadiaren galdugarrija,

diabrubaren txirrintolia, satanasaren saria, demoninuen jokua, piestia, sortia, Jesukristoren desondragarrija, kristinaubeen lotsagarrija, bautismoko promeseen ukagarrija, aingerubeen tristezia, birjineen ondamendija, adulterijogina, lapurgina, gorrotogina, zelogina...

Au esaten dabee santubak naasteko dantzak gaiti. Zer esango ebeen, geure plazeetako dantza desondraubak asi ta amaitu, etxian urtetan daneti ta sartu artian, ikusi balitubee? Nos absolbiduko ebeen guraso bat edo ume bat, berarjaz olgetia gaiti dantza madarikatu orreetan dabilena ta ibilteko ustia daukana? Euraitandu. Eleisa Ama santiaren Batzaarretako neurgarriak ta kristandadeko agintari jaunen ordenaak bere bardin kondeneetan ditubee naasteko dantzaak. Baina, ze kristandadeko? Erromako jentileenak irakurten dira dantza galdubeen kontra, errijeetako ta pamelijetako bakia ta matrimoniak galduten ditubeelako. Esan danagaz aaztu bagarik, ikusi daigun, teolojija sagradubaren erakuslaak ta errazoiak eurak gaiti dinuena .

## §. IV.

### *Theologubak ta errazoiak naasteko dantzaak gaiti dinuena.*

Ez da nire gogua, sail au luzatutia; ezbada ainbat laburren ta argiruen imintia. Liburu andiak eskribidu legiz, asko kansau bagarik, leenagoko giza aldijetakuak esan dabeena, batuten asi ezkeru. Eleisiaren Gurasuak gorrotoz begiratu badeutsee naasteko dantzai, areen ondorengo teologu edo *moralistarik* juizijozkuenak ez deutsee obeto begiratuten. Dinot: *Juizijozkuenak*. Bada, beste gauzarik eskribidu dabeenak, inok irakurten ez ditu, eureen inozenzijari ta penseeta modubari barre egiteko baino. Bat edo biren esanak nik iminiko ditut, ta beste batzuk izentau.

Leleengo lekuba errazoiagaz euki biar dau Benedikto XIV. ez estutzat, ez nasaizat irakurla batek bere ez daukanak. Onek dino, beste santu ta erakusla asko izentaut: *Gizon ta emakumeen arteko dantza naastaubak, eurenez pekatu izan ez arren, egiten dirian moduban, pekatu diriala.*



*Kura jaunai ta konpesore jaunai jagokuela, gizon ta emakume guztiai ondo aituten emotia: ze okasinoe andija ta peligruba daguan naasteko dantzeetan; ta pekatu egiteko peligru andira duazala, ara duazanak. Belarmino kardenal , jesuita beneragarriak dino: Adulterijua ta pornikazioa pekatu badira, ez dakijala berak, gizon ta emakume naaste dantzan ibiltia, zelan pekatu izango ez dan; dantziak atara konbideetan dabela ta... Zuk, dino kardenal jaunak, gaztetasunaren subari ezarten deitsazu ardauaren suba, juan ta etorri, egon ta ibili ta kantau egiten dozu neskaakin, ta ez dot nik zu gaiti gauza txarrrik pensauko?*

Aita Paulo Seineri , Italiako misinoe jakitunak ta zelotsubak, leenagoko erakusleen esan era guztiak bardinduta ta alkartuta, erakusten dau: *Dantzia berez pekatu izan ez arren, egiten dan moduban, naasteko dantzia luxurijaren biztugarrija ta berogarrija dala; ta txito errazto iragoten dala pekatu izatera. Kasuistaak bere ez dabeela au ukatu; ez bada, naasteko dantzaan pekatu egiteko daguan okasioa gaiti, guztiak erakutsi dabeela Eleisako santubakin, dantzaak pekatu mortalekuak diriana. Aita Baltasar Frankolinok*

dino: *Eguzkijaren urten erati sartu eraraginoko jakitun guztiak kondeneetan ditubeela naasteko dantzaak Jaungoikuaren kontrako pekatu anditizat.* Dotrina au berau erakusten dabee, bako txak bere lekuban ta bere sailari jagokan moduban: Natal Alexandro, Juan Pontas, Lamet, *mo* Jerson, Salbiano, Juan Nider, Kolet, Reiffest, Ferraris, Jeneto, Martxant, Konp. Salm., El R. P. Fr. Diego de Kadiz, Mansi, Poujet, R. P. Fr. Franzisko Antonio de Palazios, D. Juan Antonio de Mogel... Enpin, esan daigun era batera san Karlos Milango obispo jaunagaz: *neque vero hodie quisquam est paulo prudentior, qui choreas non detestetur.* Edo, esan daigun Benedikto XIV.: Eleisako erregeleen, santubeen ta erakusleen dotriniari itxita, libertadia ta nasaitasuna gura dabeenak, berba egiten dabeela naasteko dantzeen pabore. *Infelizes Abogados del libertinaje* esaten deutsee alakuai Benedikto XIV . Ez dago, Jaungoikuaren legia erakusteko uste onagaz pluma eskuban artu dabenik, ez *kasuistarik*, ez *probabilistarik*, zelan egiten dirian entzun ezkerogeure plazeetako dantza naastaubak, pekatu mortalaren beeko okasinoetzat emoten ez ditu-

banik. Baina zer egingo dabee gitxiago, dotrinia dakijeenak ta juizijua daukeenak, berarjaz jentia engaineetara ez baduaz, pekatu eragiteko? Ez dau Ebanjelijoko erakutsijaren errazoe agirijak au esaten? Ikusi daigun.

## ERRAZOIA

Errazoe au ezaututeko, ez daiguzan kontuban sartu, geure plazeetako dantzaak diriala medijo zuzen, errijeetan, kopradijeetan ta pamelijetan jagi oi dirian okasinoiak, burrukak ta lutzaroko gorrotuak; bengeetako atajadiaren zain urrengo piesta egunera edo erromediya egunera artian egotiak; gurasuen ta umeen arteko bidauak, bake txarra ta gaineko eguneetan alkarri barbarik egin gura eza... Ez daigun kontuban sartu, piesta eguna jaijeguna bada, egun guztia diabruba, munduba ta aragija serbiduten iragotia; Jaungoikuagaz bere ez akordeetia; ta, berbeeta onian, mezarik bere ez entzutia. Ez daigun kontuban sartu, piestia ta dantzia dala medijo baseerri etxeetan egiten dirian kastu

alperrikakuak, banidadezkuak ta neurri bagakuak. Bakidaz Bizkaijan, eurak zinuenez, piesta egun bakotxeko kastuba eun dukategaz egiten ez dabeen baseerri etxiak. Ta urte askotan alan. Ez daiguzan kontuban sartu, plazarako ta piestarako egiten dirian lapurretak ta andi ateraten dirian ordikerijak, joko txarrak ta beste malda diak. Alderatu daiguzan oneek guztiok buruti sinplezatzat ta txotxakerijatzat, errijetako dantza egun guztietan, bat itxi bagarik, jazo arren.

Ta esan daigun, kastidadiaren kontra diriala pekatu mortaleko okasinoe urrekuak. Ez gaitez an aaztu, erri oneetako plazeetako dantzaak zelan egiten dirian. Gogoratu daigun, Eskritura Sagradubak, Eleisako santubak ta jakitunak eurak gaiti dinuena. Irakurri daiguzan, Eleisiak kondernauta daukazan, luxurijari su emoten deuteen ta aren okasinoiak parkatuten ditubeen esanera galdubak, *proposizinoe* kondenaubak. Alexandro VII. 40, ta 41. Inozenzio XI. 1, 51, 57, 58, 60, 62 ta 63. Alexandro VIII. 2.... Nasaitu daigun dotrina au, al daigun guztia, dantza zaliai gusto emoteko. Ta, erakuslarik oneenak ta geijeena esan arren, borondatez ta ezauberaz izan

ezkero, ez daguala seigarren agindu santubaren kontra, beste agindu askotan legez, gauza gitxi-rik edo pekatu benialik. Imini daigun dudaan gauza au. Ta esan daigun: Kastidadiaren kontra pensamentu, berba, gurari edo egitade loi bati puska baten bijotzian ezauberaz ta naiz leku emon deutsanak, gitxija ta ezer eza dala berak uste izan arren, ez dabela jakingo erijotzako ordu artian, ala pekatu mortala ala beniala egin daben. Ebanjelijoko erakutsiti asko urten bagarik, erakuslarik geijeenak esango deutseela: *Pekatu mortala dala, alan kastidadiaren kontra-ko gauza loijari ezauberaz bijotzian leku emotia.* Baina onei guztioi erabatera itxita, guazan geure sailaren itura zuzen zuzen ta esan daigun.

Kristinaubeen dotrinaan kastidadiaren kontrako pekatu mortala da, premina bagarik berba desonestubak esatia, gustoz barre eginda entzuttia, oratute edo tokamentu desonestubak egitia, inok egin dagijozan istia, eskuka loijak egitia ta noberari egiten bestiai istia; endamas gizonezkuak emakumiai, ta emakumiak gizonezkuai. Baita pekatu mortala da, alako gauza loijak esateko, egiteko, entzuteko, ikusteko, erasoteko ta

eragiteko okasinoera ta peligrura bere guraz borondatez ta ezauberaz premina bagarik juatia, ta alako lekuban egotia bere.

Baita da egijia, plazako piestara ta dantzara duazanak, (guztiz itsubak eta gorrak edo umiak ez badira) ondo dakijeela bigarren juate aldiko: juaten dirian guztian, edo piestaruz, edo piestaa, edo piestia amaituta, edo obeto esateko, leleengoti azkenera luxuriya guztiaren testigu izatera duazana. Ondo dakijeela: Kastidadiaren kontrako pekatu mortalak, berba loijak eta zatarrak; eskuka ezainak eta desonestubak gorputzakin alkar jote lotsarizkuak; txantxeetan benetan pekatu egiteko konbit klarubak; mosuka zikinak ta errazoe indezentiak ta itzhusijak; ondo dakijeela, dinot, bai gizonak ta bai andraak, bai mutilak ta bai neskaak, duazan guztian, luxuriyaren sutegi ta ats zikin au guztiau ta geijago ikusiko dabeena, entzungo dabeena ta sentiduko dabeena. Ondo dakijeela (betikua dalako) eurai bere sarritan, edo geijeenian, edo beti esan deutseezana, ta egin deutseezana pekatu zatar, loi areek guztiak. Baita: ez gitxitan, ezbada geijeenian, ta geijeenak beti, eurak bere esan ditubee-

la ta egin ditubeela loikerija areek; ta besteen esanagaz ta eginagaz barre eginda alegrau diriala. Ezin inok ukatu legi, dantza zaliak au ondo dakijeena.

Baita egija da, gizonak eta emakumiak, mutiak ta neskaak ezereen bere premina bagarik, ez kleituban, ez aziendaan, ez osasunian onerarik edo probetxurik ez daukeela, eureen guraz ta naiz, begijai, belaarrijai ta gorputzari gusto emotia gaiti, eureen burubak erakustia gaiti, ta esandan saltsa zikin pekatuzkuan ibiltia gaiti, duazala dantzara. Duazala, luxurijazko pekatu mortalak esaten dirian, entzuten dirian, penseetan dirian, ikusten dirian, egiten dirian ta eragiten dirian okasinoe jakinera. Ta, esanak, eginak ta eragina ontzat emoten ditubeen lekura edo bidera.

Ta au onan izan ezkerro, esango dau ebanjelijua sinistuten dabenek, edo Eleisa Ama santia-  
ren semek, alako dantza galdubeetara bere guraz juatia, ez dala pekatu? Irakurri dau inok kristandadeko liburutan, alako okasinoe jakinera premina bagarik bere naiz juatia, ez dala pekatu mortala? Esan daigun, bada, euskal-errijetan,

esan dan moduban ta jazoten dan moduban, plazaan tanbolinagaz egiten dirian naasteko dantzarak, abemarijeetan tanbolina ixildu arren, pekatu mortaleko okasinoe urrekuak diriala. Nezesidade ta premina bagarik, ondo dakijeela, juaten dirialako, kastidadiaren kontrako pekatu mortalak agirijan beti egiten dirian olgeetara ta dantzara.

Esan daigun geijago: Ez daukala konpesorek Eleisako dotriniaren erregela edo neurgarririk, ez erakusleen esanik, alako dantzeetara duazanak, leen juana garbatu ta ostera ez juateko asmua artu artian, pekatubeetati askatu edo absolbidu legizala, esaten deutsanik. Ez dago onako erakutsirik Eleisa Ama santan. Ezin konpesorek pekatubeetati librau legi, alan pekatu dan okasinoe jakinera bere guraz doiana, okasinoiari isteko berbia emon artian.

Ara emen zerbait argituta, asieraan imini neban amaija edo *konklusinoia*. Plazako dantzarak zelan egiten dirian esanagaz; Espiritu Santubari ta Eleisiaren Gurasuai entzunagaz; ta geure sinistukizunen erakuslak ta errazoiak eurak gaiti dinuenagaz. Bitati bat: Edo probau,



dantza plazako orreek, esan dan moduban egi-  
ten ez diriala; ta, Eskritura Sagradubaren, Eleisa-  
ko Gurasuen ta erakusleen liburubetati atera  
dirian esanak guzurak diriala; ta, imini dan erra-  
zoiak bere zatijeetan uts uniak daukazala ta  
ondo amaituten ez dabela. Edo autortu ta konpe-  
sau, esan dirian dantzaak, pekatu mortaleko  
okasinoe urrekuak diriala; ta oni darraikona.

## IV. KAPITULUBA

### *Erromedijen, bigiren ta saraubeen gainian*

§. I. Zer dirian erromedijak.

§. II. Zer dirian bigiraak.

§. III. Zer dirian saraubak.

#### §. I.

### *Zer dirian erromedijak*

Dantzazaleen urten erai edo argumentubai erantzutera orduko, pensau dot, erabagi biar ditudala, zer dirian erromedijak, bigiraak ta saraubak. Oneen ondorik eranzungo jakue era batera guztien erraparubai.

Erromedija gaiti ez da emen beste gauzarik aituten, ez bada promesaren, santubaren edo santiaren atxekijagaz erbestera juanda, erriko ta erbesteko gizon emakume naaste, bidian ta erromedijako lekuban egiten dabeen piestia ta

dantzia. Errikuentzako da piesta eguna, ta erbestekuentzako erromediya eguna. Erromediya batzuk egiten dira errijetako eleiseetara. Baina geijeenak basoko edo mendiren bateko ermitarra. Nik izentau bagarik daki jentia ondo, onetariko ermita asko dagozana Bizkaijan ta Probinzian. Ta urrin errijetati legua askuan jentia jua oi dana erromedijara piesta egunian. Ermitetako erromedijak nos asi zirian, zegaiti asi zirian ta dagozan terzijora zelan etorri dirian esatia, sail luziagua da ta orain paltarik egiten ez dabena.

Esaten da, bada: Tanbolinagaz piestia ta naasteko dantzia egiten dan erromedijara, dantzanaaste egitera, olgeetara ta ibiltera juatia, inozenteen bat ez bada, pekatu mortala dala besteentzat. I. Plazako dantzeen kontra esan dirian errazoiak gaiti. II. Erromedijetako piestaak bide luziagokuak dirialako. Juan edo etorri, ta askotan jua ta etorri gabaz egiten dirialako. III. Alako erromedijetako dantzeetara ta piestara jenterik nasaijeena ta galdubeena jua oi dalako. IV. Gizonezkuak ta emakumiak naaste

lotsa bagarik, eskandaluba emoten dabeela, bideetan bere irago oi dirialako. Au gaiti, plaza-ko dantza naastauba okasinoe urrekua bada, esan dan legez, erromedijeetakua deungaagua da. Inok egingo baleu promesa ez jakinian, erro- medija egunian santuba edo santia bisiteeko, uste dot, egun atan esan dan moduko piesta ta dantza nasaija an egitia asko dala, promesa beste egun baterako isteeko, okasinoera ez ju- tia gaiti. Erromedijara juanda, an ibilteko atxeki- jatzat egin badau promesa, gazte askok gura- suak engaineetako egin oi ditubeen legez, uste dot, ez dala promes balijokua ta ez daguala kobru emonkizunik. Ez da santuba edo santia ondreetan alako piesta ta dantzeetan, ez bada diabruba. Ez da emen ezer esaten, erromedija eguna domeekia edo jai osua bada, egun a bideetan ta bertan gizon ta emakume naaste dantzan txilibituen, pandereten, tronpeen edo neskeen soinubagaz iragotia gaiti. Bada, au iru- garren agindubaren kontra berez pekatu morta- la dana, edozeinek daki edo jakin biar dau.

## §. II. *Zer dirian bigiraak*

Bigiraak dira beste olgeeta batzuk baseerri etxeetan mutilak eta neskaak gabaz egiten ditubeenak. Olgeeta oneek guztiz dira ezainak ta galdubak.

Egija da, ya etxe gitxitan egiten dira. Ta auzuak ondo deritxueta, baten bere ez. Onetari-ko bigiraak izaten dira baseerrijeetan, edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren, artozuritutiaren, edo gazteen aparimerijenda baten ondorik. Auzo erako ta urrinagoko neskaak eta mutilak batuten dira bigiria egiten dan etxera gabaz, ta naaste egiten dabee lotsa bagarik, nai dabeen guztia. Ez oi da ezkaratzeko suba baino beste argirik ta bera bere ez beti ixiota. Jente guztia dago edo dabil nastian. Batian kanpora urten, bestian barrura sartu. Bestian ezkaratz baztar baten illunian; bestian dantzan edo pandanguan edo beste asmo txaarragoren bat egiten. Bigireetan egiten dira gauza batzuk ain loijak eta desones-

tubak, eze turkubak eurak bere lotsatuko litzate-  
kez, ikusiko balitubee.

Umia nintzarian bigira baten edo bitan neuk  
ikusitako entzun nituban zikinkerijaak, ez ezkaratz  
bazar baten edo apartian isilik, ez bada ogetaz  
lagun asko neska ta mutil egozan ezkaratz  
betian, klaru guztien aurrian, ezin esan legi, ze  
ezainak zirian. Ume kondua nintzan, baina ondo  
daukat goguan nok zer esan eban ta zer egin  
eban ta zelan guztiak olgeetan zirian. Ez dira,  
bada, predikadoreen pulpitoko esanagaz inozen-  
teen begiak argituten, ez bada zeubeen etxeeta-  
ko berba ta egite deungeekin. Bigiriaren denpo-  
ria da gaba. Gabaz juan, gabaz ibili ta gabaz eto-  
rri. Emakume ezkonduarik inos bere ez edo txito  
nekez. Gizon ezkonduarik bere ez, berdeskaren  
batzuk ez bada. Mutilak eta neskaak dira, illuna  
baino beste testigurik ez daukeela, zein baino  
zein nasaijago ta lotsa galdukuago, bigiria egiten  
dabeenak. Bigiraan egiten dira olgeeta modu  
asko dantziaz ta pandanguaz ostian. Oneen ize-  
nak ondo dakijeez baseerritarak, nik esan baga-  
rik bere. Baina guztiak dira desonestubak ta  
txito ezainak.

Bigiria gaiti esaten da, bada: I. Bere etxian bigiria egiten inori isteen deutzanak egiten dabela pekatu mortala, etxian leku emon deutzelako. II. Besteen pekatubak bere etxeko burubaren konzienzjara duazala. III. Bigiraan alan dantzan, pandanguan ta asmo loijeetan dabiltzanak egiten dabeela pekatu mortala. Atarako gauzaak entzuteko, ikusteko, egiteko... okasinoe agirian ta jakinian eureen guraz sartuten dirialako. Ta ez da asko esatia: geldi nenguan lekuti artuta, dantzara bigiraan eruan nindubeen, emakume askok esan oi dabeen legez, eureen burubak garbituteko. Lotsa gitxiko mutil edo gizon batek atera legi kolpez artuta, dantzara edo pandangora bigiraan, bere lekuban geldi dagan emakumia edo neskatillia. Baina, gura badau, laster librauko da naaste atati. Bada, derrigorrian ta berak nai ez dabela, ez dantzan ta ez pandanguan egingo dau inok agaz. Onako atxakijaak ez deutzaz inos sinistuten emakumia-ri juizijua daukanak. Eurak nai dabeelako dira eureen dantzaak ta pekatubak. Ze gitxi egingo leukeen alako neskaak dantzan... morrosko bategaz! Zegaiti? Morroskuagaz olgau gura ez

dabeelako. Nai ez balebee, bestek bere eragingo ez leuskijue. IV. Alan bigirako olgeeta desonestuban dabiltzanak inok absolbidu ezin legiz, eginak garbatu ta ez egiteko asmua edo proposituba artu artian. Ta ain gitxi, bere etxian bigiria egiten dabena.

Ezpatetara, gorubetara edo beste gau biar batera juatia ta an, esan dan moduban, bigiraan ibiltia gauza bi dira. Bata emakume ta neskatilla ondrau askok egiten dabee, bestia egin bagarik. Askok auzo erako artu emonai kobru emoten deutsee, bigirako naaste loirik eureen etxeetan egiten itxi bagarik ta inoren etxera duazanian egin bagarik. Bestiak bere egin legijee, nai izan ezkerero.

### §. III.

#### *Saraubak zer dirian.*

Sarauba, esaten da emen dala andi etxe baten, gizon eta emakume naaste, gabaz egiten dabeen dantzia ta olgeetia, etxeko ta kanpoko, euretariko edozein barruban sartuten diriala.



Onetariko saraubak eta bigiraak alkarren lagunak dira. Bigirara auzo erakuak duazan legez, saraura bere auzo erakuak duaz. Bigiria gabaz egiten dan legez, sarauba bere bai. Bigirara gaztiak duazan legez geijeenan, saraura bere bai. Nekezarijeen sarauba da bigiria. Ta andikijeen bigiria da sarauba. Izenak mudeetan dira. Olgeetia ta desonestidadia bijeetan dabil airian. Ez dago Jaungoikuaren aurrian donik ez doinarik, ez bada egite onak edo txarrak. Baseerriko mutilak eta neskaak etxe baten sartuta gabaz olgeeta loijeetan ibiltia pekatu bada, andi etxeetako jaunak eta seinorak, zaldunak eta damaak gabian alkarregana batuta dantza ta olgeeta nasaijeetan naaste ibiltia bere pekatu da. Itanduko baleustee zein dirian txarrago, bigiria ala sarauba , esango neuke: Bigiria zatarrago ta itzhusijago, baina sarauba txarrago ta gatxtsubago edo malezijotsubago. Bigiraan kolpe baten emoten jakue begijai ta belarrijai kastidadiaren kontrako lotsaari andijagua; baina sarauban emoten jakue aragijari ta luxurijari su gorijagua. Bijeetan, bai bigiraan ta bai sarauban, dauka luxurijak mai presta janari ugarijagaz. Baina

sarauban obeto gisauba ta gozuagua. Ta au errazoe asko gaiti.

I. Sarauko jentiaren jantzi armatuba gaiti. Bada, jente apainduba ta ondo baino obeto apainduba juaten da andikijeen bigirara. Ez dinot ezer arako bularrak, idunak ta besuak agirijan edo guztiz agirijan baino aragijaren sugarrijago, andikijeen bigirara daruezan andra edo neska loijak gaiti; ez bada, dinot, kaballero edo zaldun, señora edo dama, dana dala, juaten dala ondo apainduta bigirara. II. Andikijeen aziera biguna ta leuna gaiti. III. Eureen malezija aurreratuba ta gatxerako jakiturija goixtarra gaiti. IV. Eureen gorputz atseenak ta gitxi domauba gaiti. V. Eureen bigireetako musika ta kanta indezente ta odolberozailiak gaiti, zeintzuk dirian luxurijaren azogia ta aragijaren sugarria. Saraubari darraikoan kondezinoe oneek, airian darabilee olgeeta galdu areetan luxurijaren suba ta desonestidadia. Ta oraindino geijago, Tertulianok dinuan legez, eureen saraubetako luxurija inos oztu ez dakijuen, neguban bere jantzita eukiten ditubee andikijak eureen bigira edo saraulekubak. Bada, baseerrijeetako bigiraak badira pekatu mortale-

kuak, esan dirian errazoiak gaiti, andietxeetako saraubak malezija geijago, luxuriya sutsubago ta pekatu geijago daukeenak dira. Alan pekatu mortala da, esan dan legez, sarauba egiteko salia edo etxia jentiari emotia. Pekatu mortalera-ko bidia inori emoten jakolako. Pekatu mortaleko okasinoe urrekua da alako sarauko dantza nastia ta olgeeta indezentia. Baita, bere naiz, alako dantza naastau loijan ibiltia bere. Ta egina garbatuta, osteria ez egiteko asmua artu artian, ez kaballeruak, ez seinoraak, ez zaldunak, ez damaak ez dagoz prest konpeseetako; ezin inok absolbidu legiz. Irakurri bedi, erraza da ta, leen izentau dan Aita Kadizen karta juizijozkua. Noberak obeto ez badaki, an ikusiko dau zer dirian saraubak ta saraudunak.

Emeti ateraten dan kontuba da plazako naasteko, erromedijetako, bigireetako ta saraubeetako esan dirian dantzai jarraitutia, pekatu mortala edo illgarrija dala. Onen errazoia da esan dirian olgeetaak pekatu mortaleko okasino urrekua izatia. Plazako, erromedijako, bigirako ta sarauko dantzaan, gizon ta emakume naaste egiten danian, beti dagoz berba loijak, eskuka

desonestubak, egitade torpiak, menio lotsarizkuak ta luxurijaren azalkeria ezainak. Onako Eleisa Ama santiak pekatu mortaltzat erakusita daukazan gauza desonestubak edo kastidadiaren kontrakuak esan, entzun, ikusi ta, edo noberrari edo albokuari, nai dabela edo nai ez dabela, egiten sentidu bagarik, ez da olgeeta inpernuko areetati etxian sartuten inor amarreti irutan; begaz, plazako, erromedijako, bigirako ta sarauko dantza naastaubak, kastidadiaren kontrako pekatu mortala dirian gauza desonestubak esateko, entzuteko ta sentiduteko okasinoe urrekuak dira. Pekatu mortalaren beian eragotzita dagozan kastidadiaren kontrako gauzaak esateko edo egiteko edo entzuteko edo eragiteko okasinoe urrekora bere guraz juatia, olgeetia gaiti ta gorputzari gusto emotia gaiti beste premina edo nezesidade andiren bat bagarik, beti da pekatu mortala. Begaz, esan dan dantza loi ta naastaubetara, premina andi bat bagarik eureen gustoz olgeetia gaiti duazanak, egiten dabee pekatu mortala. Bitati bat: edo esan noberaren naizko ta borondatezko eskuka, mosuka, oratute ta berba desonestubak mutil ta neska, zaar ta gazteen

artian egitia edo egiten istia ez dala pekatu mortala, edo autortu, izentau dirian olgeeta desonestubeetara bere guraz premina bagarik juatia, pekatu mortala dala. Leleengua esaten ez da kristinaurik azartuten. Bada, sinistu bigarrena. Ta euki plazako, erromedijako, bigirako ta sarauko dantza desonestu orreek pekatu mortaltzat edo pekatu mortaleko okasinoe urrekotzat.

Esan dan ibilteetara olgeetia gaiti, gorputzari gusto emotia gaiti duazanak, nai dabee pekatuko okasinoe urrekua. Pekatuko okasinoe urrekua nai dabenak nai dau pekatu peligruba. Pekatuko peligruba nai dabenak nai dau pekatuba. Pekatuba nai dabenak ez dauka pekatubaren gorrotorik, ez damurik. Pekatubaren gorrotorik eta damurik ez daukana inok pekatuti absolbidu edo librau ezin legi. Begaz, esan dan plazako, erromedijako, bigirako ta sarauko dantzeetara ta olgeeta loijeetara eureen gustoz ibiltia gaiti, olgeetia gaiti ta gorputzari gusto emotia gaiti jakinaz duazanak, leen juana garbatu ta osteraz ez juateko berbia emon artian, inok pekatuti askatu edo absolbidu ezin legiz.

Zurtu, konpesore jaunak, ta kontu zeubeen arimak ta dantzarijeenak inpernura eruan ez dagizuzan. Errazoe onek, uste dot, ez dauka uts unerik ebanjelijo santuko erakutsijan. Esan dot leen, *amarreti iru bidar* ez diriala etxian sartuten pekatu mortala dan gauza ezainen bat irago bagarik, ene errazoa probeetako asko dalako. Baina oi danez, ta izan leitekianez, (itsubak ta gorrak ez badira) juaten dirian baktotxian, ez bein ta birritan, ez bada zortzi edo amar bidar bere, jazoten jakuez esan dirian desonestidadiak ta pekatubak. Ta au eurak autor dabee juizijo onera elduten dirianian edo Jaungoikuak bijotzian ikututen deutseenian ondo konpeseetako.

Errazoe onen errespuestarik ezin topau izan dot nik neure konzienzijaren deijak ixilduteko, sarri gura izan arren. Ikusi dot eldu nasan euskal-errijeetan, ta ez gitxitan, gogo bat, nasaitasun bat ta ez dakit zelako enpeinu bat, esan dirian olgeeta lotsarizkuetan, ta pekatuzkuetan, kristinaubak piesta eguneetan ta gaurik geijee-nian ibilteko, ta dabiltzala txito ezain. Neure estadubaren zer egin nausi bategaz aaztu bagarik, ezin apartau izan nas konpesinoe asko

entzuteti. Emen zan nire lana ta konzienzija isildu ezina. Nai neukian ta askotan (ta dinot zerubaren aurrian) dantzazaliak absolbidutia, osteraz egiteko berbia eskatu edo emon eragin bagarik. Asi nintzan dantzazaliak esamineetan, baita Eleisiaren erakuslaak dantzeen gainian zer dinuen irakurten bere. Ta zeinbat geijago irakurrigo ta zeinbat geijago esaminaubago kondenezinoe ta edade guztietako persona dantzazaliak, ainbat topau dot ezainago, itzhusijago ta desonestubago dala liburubak esaten dabeena baino naasteko dantzetan egiten dana. Sinistuten dot, olgeeta madarikatu orreekin daukala satanasak itsututa euskal-errietako jenterik geijeena. Sinistuten dot, erri oneetan kondeneetan diria-neetati geijeena kondeneetan diriala, olgeeta pekatuzko orreek diriala medijo.

Zerbait gaiti erakutsi ebeen Alexandro Alex, jakitun andijak ta Gillermo Rodonakuak (ta dakarreez san Karlos Milanguak, Lametek ta beste askok), batak emakumia ta bestiak gizonezkua exenplutzat artuta, dotrina bat dantzazale guztiak goguan euki daikeena, eureen arimai ondo gura badeutsee. Itandu jakuen jakitun andi arei

ia emakume bat edo gizonezko bat goguz kontrara, juan baino ez juan naijago leukiala, gurasuak edo errespetozko personaren batek erregututen deutsalako, nos edo noskoren baten, banakaren baten, naasteko dantzara juaten danak ta dantzaan ainbat onestidaderik oneenagaz dabilenak egiten daben pekatu mortala ala beniala. Au itandu jakuen jakitun andi arei. Ta erantzun ebeen: ez ziriala eurak azartuten erabagiten ez pekatu mortala egiten ebeela ta ezda egiten ez ebeela bere. Deskuidoko baten baino ez dalako, dantziari gorroto deutsalala ta goguz kontrara dalako ta ainbat modurik oneenagaz ibili dalako, esan legi, dinuee, ez dabela pekatu mortalik egin alan naasteko dantzara juan dan gizonak edo emakumiak. Baina *besteekin naasteko dantzaan sartu dalako, okasinoian bere buruba imini dabelako, besteen dantzia bera sartubagaz ontzat emon dabelako ta bera dala mediyo bestiak pekatu egin eukeelako, ez dot pekatu mortaleti libreetan alako emakumia*, dino Alexandro Alexek. Ta ezda *gizona bere*, dino Gillermo Rodonakuak.



Nekezko baten edo nosik beinako deskuidoren baten (*raro*) goguz kontrara edozein naasteko dantzatan sartuta ainbat modurik oneengaz ibili dan gizona nai emakumia libreetan ez badabee pekatu mortaleti, izentau dirian erakusla pamaubak, ta beste askok, zelan librauko ditubee plazako, erromedijako, bigirako ta sarauko dantza desonestura eureen guraz, poz arren armatuta, agineetati ura darijuela duazan gizonak eta emakumiak? Mutilak eta Neskaak? Eze-lan bere ez. Inundi bere ez. Inok bere ez. Dantza areek ta olgeeta areek zer dirian dakijanek, inos bere ez.

Ez da naasteko dantza areetan pekatu bat bakarrik egiten, ez bada asko eskandaluko malezizagaz. Erijotzako ordu artian ez dozu jakingo zu ibili zarian dantza ta piesta orreetan, zu zariala medijo, bestiak zeinbat pekatu mortal egin ditubeen, zuk igarri ez arren ta aintzat euki ez arren. Zer desiau dozu zeuk? Zer pensau dozu? Zer amau dozu? Zegaz bijotza poztuta, barre eginda, gozatu dozu? Zer konsentidu dozu ta egin dozu sarritan dantza ta olgeeta galdu orreetan bestiai entzunda ta ikusita? Esan deutseezu bestiai

zeinbat pensamentu, gurari ta desio pekatuzkori leku emon deutzazun bijotzian, inoren eginak ikusita ta esanak entzunda? Konteetan deutzazun inori dantza orreetan, bigira orreetan, sarau orreetan... eragin deutzabeezan pekatubak? Bada, zu zariala medijo, bestiak egin ditubeenak bere zuk ez dituzu jakingo erijotzako ordu artian. Orduban bai. Orduban jakingo dozu zeinbat pekatu ta zeintzuk egin zitubeen piesta, erremedija, bigira ta sarau orreetan zuri ikusita, zuri entzunda, zuk atarako bidia ta eskandaluba emonda. Orduban, erijotza erremedijo bagakuan, jakingo dozu zeinbat arima diabrubaren sareperatu dituzun zeure dantza loijeetako ibiltiagaz. Au da, zuk dantzara juanda emon dozun eskandaluba. Onan galdu dituzu laguneen arimak. Au dakizula juan zara. Premina bagarik juan zara; olgeetia gaiti ta zeure gorputzari gusto emotia gaiti juan zara. Bada, besteen pekatubetan bere parte zara. Au gaiti beste bagarik, dino san Karlos, Milango obispo jaunak santo Tomas ta beste erakuslakin, pekatu mortala egiten dabeela alako dantzeetara duazanak. Esan daigun, bada, ostera bere Santu andijagaz

beragaz: *Ez gaizala inok euki estutzat olgeeta madarikatu orreek pekatu mortalekotzat kondeneetan ditugunian, edo Benedikto XIV: Pekatuba, libertadia ta nasaitasuna nai dabeen desdixaubak berba egiten dabeela naasteko dantzeen pabore.* Ta ikusi daigun ze indar daukeen dantzazaleen urteneraak edo argumentubak.

## V. KAPITULUBA

*Dantzeen paboreko errazoiak ta erantzunak.*

- §. I. Dantzaak ain deungaak balira, kendu egingo litzaatekez.
- §. II. Santo Tomasek dino, dantzan egitia ez dala pekatu.
- §. III. San Pranzisko Salesek Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan egitia.
- §. IV. Abadiak ta prailiak bere juaten dira piesteetara ta saraubetan dantzan bere egiten dabee batzuk. Ain txarrak balira, ez leukee egingo.
- §. V. Piestetara ta dantzeetara jua arren, ez dot nik pekaturik egiten.
- §. VI. Dantzeetan ez eze, eleisaan bere pekatu egin legi nai dabenak. Ara bere ez jua.
- §. VII. Gaztiak zetan edo atan olgau biar dabee.

§. VIII. Oba da alkarregaz plazaan edo bigiraan edo sarauban olgeetia, ezkutubeetan gauza txarraguak egitia baino.

§. I.

*Dantzaak ain deungaak balira,  
kendu egingo litzatekez*

Ez da herejerik agertu mundura, egijaren koloriagaz bere guzurrak jantzita, inozente ez jakin asko engaineetako asmua artu ez dabenik. Beste ainbeste jazoten da kristinaubeen arteko ekandu pekatuzko ta oitura galdu askogaz. Ta au berau orain aita dogun sailaren gainian. Asko dagoz munduban dantzeetako nasaitasuna, libertadia ta luxuriya zaintu ta jaso gura dabee-nak, diabrubeen irabatzija gitxitu ez dedin. Au jadisteko, guzurrai emoten deutsee egijaren koloria. Burla egiten deutsee pulpitoko ebanjeli-joko esanai. Trateetan ditubee sinpletzat konpe-sorerik eldubeenak ta errazoezkuenak. Kontee-tan ditubee txotxakerijazat pekatu mortal agiri-

jak. Pinteetan ditubee milla guzur ta ipoin naas-  
taugaz, santubak ta santaak izentauta, kastida-  
dia aaztu eragiten dabeen ta pekatuz josita  
dagotzan olgeeta zorigaistokuak, biarrekuak,  
inozentiak ta onak balira legez. Ta engaineetan  
dabee onerako 15 10 15 20 25 baino gatxerako  
prestaago daguan jente gitxijakin guztia konde-  
neetako bidera. Oneek badira pelukadunak edo  
koroedunak, oh! ze predikadoriak diabrubaren-  
tzat. Ez dira eureen sermoiak irabatzi gitxigaz  
geratuko. Ara emen aitatuta ekandu ta oitura  
galdu asko beti oinian eukiteko sustraija. *Qui  
habet aures audiendi, audiat.* Emen imini ditu-  
dan ta esaminau gura ditudan dantzazaleen  
argumentubak neuri askotan ta txito sarritan  
gizonak eta emakumiak, zaarrak eta gaztiak, ta  
areetati asko salbeetako duina dotrina ez dakije-  
nak, konpesonarijuan iminijak dira. Oneetati  
leleengo argumentuba edo urteneria da, esatia:

Dantzaak ain deungaak balira, kendu egingo  
litukeez guztiz; ez dira guztiz kenduten; begaz,  
ez dira deungaak edo pekatuzkuak.

Esan dan baisen pekatuzkuak izan arren, ez dira kenduten. Ta etxuria daukanez, guztiz kenduko bere ez dira.

Au obeto aituteko gogoratu biar dogu naasteko dantzeen asieria ta zelan kristinau errijeetara etorri zirian. San Ziprianok ta san Isidorok esaten dabee gizonak eta emakumiak engaineetako, bere sarian sartuteko ta inpernura eruateko, demoniuak asmau zitubala dantzaak. San Ambrosiok dino munduko jakitunen eritxijan ordikerijak ta zorakerijak ekarri ditubala dantzaak. Beste batzuk seinalleetan deutsee dantzai ernelekuba ta esaten dabee: Danen tribu edo kastati datoza la dantzaak. Oneek dinue, danen kastakuak ziriala, arako urragorrizko idiskua emakumeen zirzilubakin eginda, israeltarrai mendijan Jaungoikotzat adorau eragin eutseenak; ta Jaungoiko egijazkua ukatuta, dantzan eragin eutseenak. Dan gaiti Espiritu Santubak esanda dauka sugia legez edo sierpia legez izango dala bere kastia. *Fiat Dan, sicut coluber in via, et sicut cerastes in semita.* Danen kasta galdubari ezarri eutsan Jaungoikuak maldezinoia: sugiak legez edo sierpiak legez pausu egiteko ta ibilteko. Bada, mun-

duban bada giza kastarik sugia legez dabilenik, dantzaarijak dira. Dantzaarijak dabiltz sugia legez edo sierpia legez jiraka ta okerka, buru zitala (aurrekuduna) an sartu ta emen atera, batian ezkutau ta bestian agertu, ain laster onduan zein gerrijan darabilela. Dantziaren jiraak bere guztiak dira ezkerrerakuak, zein dan pausu egiteko ta ibilteko alde madarikatuba Eskritura Sagraduban. Danen kasta gaistoti datorrelako, emoten jako dantziari oneetako berbeeta askotan bere eriko izena. Bada, euskeeraz, erdeeraz, pranzes, italiano, teutoniko ta beste askotan, dinueenez, *dantzia*, *dantza*, *danse*, *danser...* esaten jako olgeeta indezente ari. Nai dala Danen kasta galduba, nai dala demoninua, nai dala ordikerija, nai dala zorakerija dantzaak asmau ditubana, guraso ondraubak daukeez dantzarijak.

Baina zelan etorri dira kristinau errijeetara dantza madarikatu orreek? Zelan? Etorri zirian, bada, jentileetati kristinaubeetara. Ta gero gurasuetati umeetara. Gauza jakina da, jentilak edozein izate artuten ebeena Jaungoikotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoiko paltsuai eureen izenak.



Jaungoiko paltso areek ondreetako egiten zitu-  
been eureen egunetan piestaak, dantzaak ta  
beste olgeeta itzhusi lotsarizkuak, *Jaungoikuaren*  
*Ziudadeko* liburuban san Agustinek dinuan legez  
. Oneek dira arako ardaozko, odolezko ta luxuri-  
ja utsezko jentilen olgeeta loijak ta gizatasuna-  
ren desondragarriak, zeintzubetan gizonak pies-  
tia egiteko pelietan zirian artzakin, otsoakin, ta  
tigreekin, alkar ill artian.

Apostolu santubak ebanjelijua predikeetara  
zabaldu zirianian, Isrraelgo ta Judeako erreinu  
txiki bijak itxita, beste mundu guztia zan jenti-  
leena. Olgeeta odoltsubakin, luxurijotsubakin ta  
ardaotsubakin Jaungoiko paltso asko, Marte,  
Jupiter, Bako, Benus ta beste milla gauza loi  
Jaungoikotzat adoreetan zitubeenena. Marte  
gerragina ondreetako, gizonak pelietan zirian  
alkar ill artian ezpataka alkarregaz; edo otsuakin  
ta artzakin, batzubak ill artian. Bako ardaogina  
ondreetako, gizonak eta emakumiak maats mor-  
doz ta panpanuz jantzita, ordituta ibilten zirian  
dantzan naaste plazarik plaza, kalerik kale.  
Benus loija ondreetako, gizon ta emakume ordi-  
tuta, biloxik ibilten zirian naaste, guztien agirijan

dantzan ta edozein gauza loi egiten. Ta onan beste Jaungoiko paltso eguneetan. Au zan jentileen sinistutia ta erlijinoia. Onan topau ebeen apostolu santubak munduba.

Apostolubak jentil asko biurtu edo ekarri arren ebanjelijoko sinistute ta lege garbira ta zuzenera, geratuten zirian kristinau barriak jentileen artian. Esateko moduban, erri baten beegozan berreun edo irureun kristinau barri, beste bosteun edo seireun jentilak zirian. Ebanjelijo santura biurtu ez zirianak. Eureen Jaungoiko paltso eguneetan, leenago legez, olgeeta ardaotsubak, loijak ta odoltsubak eukeezanak. Au erakusten deuskubee mundu guztiko jazuak. Ta au berau irakurten dogu geure Españakuetan. Ebanjelijo santubak ta Eleisa Ama santiaren ordenaak eragozten eutseen kristinau barriai, jentileen dibersinoetara juatia. Ta agindu eutseen debozinoe santu bategaz ta espiritu egijazkuagaz ondrau egijeezala Jesukristo geure Jaunaren, Ama Birjina guztiz santiaren, apostolu santubeen ta martirijeen egunak, zerubari grazijak emonagaz ta karidadezko ta onestidadezko alegrija santa bategaz, jentileen itsutasuneetati

ta pekatubeetati Jesukristok librau zitubalako. Au onan Eleisiak aginduta egon arren, kristinau barri guztiak ez zirian santubak. Gusteetan jakuezan sabelaren ta aragijaren erako olgeetak. Ta ikusteen zitubeen legez kristinau barriak eureen senidiak, auzuak ta erritar jentilak Jaungoiko paltso eguneetan olgeetan nasai, eurak bere asi zirian, euren santu eguneetan eleisaan santubak ondrauta, eleisakua eginda gero, plazaan jentileen olgeetak egiten. Onako geure santu egunetako olgeetak, gurasuetati umeetara, giza aldirik giza aldira, eldu dira geure denporaragino. Ara emen geure errijeetako zezeneen, ezpata dantzeen, desapijozko burrukeen, maki-lakeen, ezpatakeen, komedijeen, dantzeen ta konbidautegijeen sartueria edo etorrieria kristandadera.

Au gaiti esaten deutsee Eleisiaren Gurasuak berbaoro geure errijeetako zezenai, dantzai ta komedijai: Jentilidiaren zatijak, relikijak edo ondokinak, *idolatrijak*, Jaungoiko ukazalliak. Gerraginak bere geitu ditubee komedijak, dantzaak ta olgeeta pekatuzkuak. Soldau aldraak sartuten zirian ezpata odoltsubakin errijeetan, ta

zirian legez geijeenak jente guztiz nasaija, eureen gusto guztiak eskatuten zitubeen gau ta egun. Areetati naijeen ebeena zan komedija, sarauba, naasteko dantzia, zein dan luxurijaren ama. Onan etorri da ta zabaldu da kristinau errijeetan, diabrubak jentileen artian erein eban azi inpamiaren prutu madarikatuba dantza desonestu orreetan.

Ikusi ezkeru, ze asiera ondrauba daukeen naasteko dantzaak ta zelan zabaldu dirian kristandadian, esan biar da zegaiti kenduten ez dirian. Esaten da, bada: I. Eleisiaren batzarrak, erakusla santubak, ta kristandadeko errege jaun askoren (baita jentileenak bere batzuk) orde-naak, egin dabeela alegina, errijeetati dantza galdubak kenduteko. Irakurri bediz san Karlos, Milango obispo jauna, Franzisko Jeneto, obispo jauna, ta beste, kasik edozein penseeta oneko erakusla, ta eurak esango dabee zeinbat alegin egin dan giza aldi guztietan dantza naastaubak kondeneetako. II. Ez obispok, ez kurak, ez r regek, ez juezek ez deutsa inori aginduten, ez piestara juateko, ez naasteko dantzaan sartuteko. Ez da inor karzelara eruatzen, ez multeetan,

dantzan egin ez dabelako. Eleisiaren burubak ta errege jaunak asko estimauko leukee, kristinaubak Jaungoikuaren bildur santuba gaiti, ta egun aretako kastu alperrikakuak gaiti, dantza orreetati ta arimak galduteko piesta orreetati alde egitia. III. Errege jaunak ta legeginak itxi legijue errijetako jentiari piestaak ta dantzaak egiten, pekatu diriana eurak jakin arren, eurak pekaturik egin bagarik, dino santo Tomasek. Gauza bat da pekatu egiteko agindutia ta beste bat da, guztia erremedijau ezin danian, pekatu egiten istia. Pekatu egiteko agindutia guztientzat ta beti da pekatu. Pekatu egiten istia, geijago ezin danian, ez da pekatu. Mundukuak ezin erremedijau legijeez pekatu guztiak. Orregaiti errege jaunak ta legeginak, dakijeela, pekatu askori jazoten isteen deutsee.

Moisek emon eutseen libertadia judegubai, leleengo emaztiari itxita, beste bategaz ezkonduko. Baita kanpotarrai logrerijan aurriz zerbait presteetako bere. Legeginak parkatu legijee, emakume galdubak eureen tratu txaarrian bitzi izateko, etxe jakina ta agirija. Baita komedijak egiteko lizenzia emon bere, opizijo inpamia

ta pekatuzkua izan arren. Alako gauzaak pekatu diriana jakin arren, jazoten isteen deutsee legeginkak, eurak pekatu egin bagarik. Bakijee kristandadeko agintari jaunak lekuban lekuban dagozana nasaijak, Jaungoikuaren bildur bagakuak, zeruba galdubak edo irabatzijak penarik emoten ez deutseenak, odolaren ta aragijaren artian loituta bitzi gura dabeenak; ta asko izan arren zerurako deitubak, gitxi izango diriala zerurakuak.

Au berau jazoten da, bada, geure errijeetako piesta ta dantza naastaubakin. Ez dira kenduten; ta ez dira obaago kenduten ez dirialako. Ezpabere esan egidazu: Nok guztiz kendu legiz edo kenduko ditu geure plazeetako dantza lotsagarrijak? Edo, nok dauka obligazioia kenduteko, ain txarrak izan arren? Obispo jaunak, kura jaunak, predikadoriak ta konpesoriak, askok alegina egin dabee ta egiten dabee kenduteko, baina ezin kendu ditubee. Errege jaunak ta legeginkak erakutsi dabee eureen borondatia ta geijago zeregin ez daukee, santo Tomasegaz esan dirian errazoiak gaiti. Urijeetako alkate jaunak ta errijeetako piel jaunak nai balebee bere, kendu ezin

legijeez, urijak edo erriyak nai ez dabela, sarritan ikusi dogun legez. Nok ditu, bada, guztiz kendutekuak? Nai dozu Jaungoikua etorri dakizun dantzazale bakotxari esatera *dantza orreek pekatuzkuak diriala ta ez juateko?* Edo nai dozu zerubak gorroto deutseen seinale batzuk emon dagizuzan? Irakurri egizuz, bada, Benedikto XIV., Markanzio, Seineri, Looner, Balero ta beste edozein erakusla, dantzeen gainian puska bat sustraiz berba egiten dabeenak. Areetan ikusiko dozu zeinbat kastigu ikaragarri egin dituban zerubak giza aldi askotan ta kasik erreinu guztietan, pekatuzko dantza, ta olgeeta madarikatu orretati kristinaubak aparteetako. Ta kendu ditu guztiz? Ez, por zierto. Kastigubaren trumoe aldija irago dedinian, nasaijak ta desonestubak leengo pekatubeetara.

Nok ditu, bada, guztiz kendutekuak? Ziudadiak, urijak eta erriyak kendu legijez eureen luurrekuak, gura balebee. Ez dau kristandadeko legeginek ez uririk, ez zitudaderik, ez erririk kastiguetan, bere luurreko dantza nastekuak kendu ditubalako. Ereje batek edo ateista batek kastigau legi, Pranzasak egin dabeen legez. Baina ez

parte oneko agintarik . Alan, erriko jentia gura balebee, kendu legijeez guztiz eureen errikuak eta luur barrukuak. Kendu biar ditubeen edo ez, eurak jakingo dabee. Baina nos gura izan dabee uri bateko edo erri bateko auzo edo bezino guztiak, eureen erriko dantza naastaubak eta pekatuzkuak guztiz kendutia? Auzo batzuk beti. Beste batzuk inos bere ez. Batzuk esaten badabee ez dala egin biar pekatuzko dantza edo pista nasairik, beste batzuk dinue leen bere egiten ziriala ta orain bere egin biar diriala. Jagiten da auzi bat errikuen eureen artian. Juaten dira juez nausijaguagana ta esaten dau ak erriko bakia gaiti: *useetan dana, egin dedilla*. Ara emen dantzazaleen gau ta egun pista galduko edo dantza nasaijeetako, eurak esan oi dabeen, libertadia edo lizenzija. Sarritan au jazo da geure errijeetan. Ta geratu dira dantza desonestubak leengo terzijuan, agintarijak errurik ez daukeela.

Emeti ezaututen da zegaiti kenduten ez dirian naasteko dantzaak, pekatuzkuak izan arren. Deungaak dira ta kenduten ez dira. Ta kendu ez arren, ez da pekatu txikijagua, dakijaila, dantza areetara juatia. Kendu ezak ez ditu



gitxituten, ez txikituten naaste inpame atako pekatubak.

Alperrik da, bada, esatia: *zetako dantzaak guztiz kenduten ez dira, ain deungaak badira?* Ez dira kenduten ta, etxuria daukanez, kenduko bere ez dira guztiz. Ta orregaiti bapere obaak ez dira. Beste modu baten kendu legiz guztiz. Ta txito errazto. Zelan? *Juan ezagaz*. Inor juaten ez bada, kenduta dagoz. Askorentzat kenduta dagoz. Bestiak bere juan ezagaz kendu legijez. Ta au esaten jakue kristinaubai egin biar dabee-la pekatu mortalaren beian.

## §. II.

### *Santo Tomasek dino dantzan egitia berez ez dala pekatu*

Bigarren lekuban santo Tomas, Eleisiaren erakusla andija dakarree testigutzat dantzarijak, eureen olgeeta nasaijak oinian eukiteko. Santu gloriosua aotan artuta, koipaatu ta leundu gura litukee dantza desonestubak, leen dirian baino geijago. Santo Tomasek ta beste juizijua dau-

keen guztiak esaten dabee dantzan egitia berez pekatu ez dana. Ta zer daukagu onegaz? Plazeetako, erromedijeetako, bigireetako ta saraubeetako dantza leen izentaubak pekatu ez diriala? Au ez. Errezago da zeruba luurragaz batuten, oneek bijok bat egiten baino. Santo Tomasek dino kanta onestubagaz, soinu onestubagaz ta egitade indezente bagarik ta beste onestidadia ezaindu legijan gauza bagarik, persona eldubak ta modestijazkuak, aparteko motibo andi bategaz, dantzan egitia ez dala pekatu. Baina sartuten bada edo naasteetan bada indezenzijazko gauzarik dantzaan, gauza jakina dala pekatu dana. Au ta geijago eskatuten dau Santubak dantzia pekatu ez izateko, *et si quae hujus modi* esanagaz. Begiratu bekijo, bada, berbeeta oni ta orrako plazeetako, erromedijeetako, bigireetako ta saraubeetako dantza ederroi bere bai, leleengoti azkenera. Ta betor nai dabena ia alkarregaz bat egin al dagizan ikusten. Bat egin al badaiz Kristo ta diabruba, grazija ta pekatuba, gaba ta eguna, onestidadia ta desonestidadia, kastidadia ta luxurija, santo Tomasen esana bere bat egingo dau esan dirian dantzeekin.

Dantzán egitia berez pekatu ez da; baina egiten dan ta useetan dan moduban egitia, pekatu mortaleko okasinoe urrekua da. Orregaiti santo Tomasek esaten dau ainbeste lekutan ta beti alako okasinoera juatia pekatu dala. Dantzia pekatu egiteko okasinoia bada, dantzara juatia pekatu dala... Domeekan dantzán egitia, soluan nabasen egitia baino pekatu andijagua dala...

Egin bedi, bada, dantzán, egin biar bada. Loitu bediz gorputzak ta kondenau bitez arimak, dantzaarijak alan gura badabee. Baina ez bedi sekula aotan artu santo Tomas, eskoleetako aingeruba ta birjinidadiaren mirarizko ispilluba, geure errijeetako dantza nasaijak ta desonestubak ontzat emoteko.

### §. III.

*San Pranzisko Salesek Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzán egitia.*

Irugarren lekuban dinue dantzazaliak san Pranzisko Salesek ez eutsala Philoteari guztiz eragotzi dantzán egitia. Ezin esan ginai Santu-

bak emongo eutsala libertadia pekatu egiteko. Begaz, ez da pekatu dantzan egitia san Pranzisko Salesen eritxijan. Au da Santu andi aganik dantzaarijak ateraten dabeen kontuba. Ta onan jabonau gura litukee dantza inpamiak, Santubak erakutsijak ta ontzat emonak balira legez. Onei esaten jakue, itsututa ez badagoz, irakurri daji-jeela Santuba bera. Berak dino: «Dantzan egitia berez pekatu ez dala... Dantzarik oneenak bere utsa balijo dabeela... Egiten dirian moduban, gauza txarren ta pekatubaren entero urrekuak diriala; ta orregaiti arrisku ta peligru andikuak diriala... Dantzara duazanak alkarren propijan banidadez duazala. Banidade atati urteten dabeela maitekerija txarrak ta peligruzko kari- nuak. Basoko suga ta pristija benenotsubak oin- duari berenua ezarten deutseen legez, dantzar- ijak albokuari belarrijan esaten deutzazan berba desonestubak, begirakune maitiak ta eskuka loi- jak sartuten deutseela bijotzian pekatubaren berenua. Nok ez daki orduban bijotza pretauta daguana pekatuban jausteko, pekatubari obei- duteko ta berenuagaz ilteko?

«Dantzan egizu, bada, gitxi ta gitxitan, Philotea... ta orduban ondo prestauta. Baina zelan prestauta? Modestijaz, juizijoz ta intenzinoe onagaz».

Au guztiau da san Pranzisko Salesena. Ta oraindino geijago [dino] Santu andijak ta garbijak, dantziak gatx egin ez dagijon. Baina zer geijago? Pensau gauza batzuk. Baina zer pensau? Ara beraren berbaak: «Pensau egizu leleengo, zu dantzan zenbizan artian zeinbat arima inpernuban erreetan egongo zirian, dantzan ta dantzia zala medijo egin zituben pekatubak gaiti. Pensau egizu bigarrenian, zeinbat praile ta kristinau on egozan orduban Jaungoikua alabeetan. Oh, ze obeto egin dabeen areek zuk baino! Pensau egizu irugarrenian, zuk dantzan egin dozun artian zeinbat illda beste mundura juan dirian. Zeinbat ospitaleetan padeziduten egon dirian... Ah, tristiak! Ez zara errukituten areekin? Deritxazu ez dozula negar egingo, areek legez, egunen baten beste batzuk dantzan dabiltzanian? Pensau egizu laugarrenian, Jesusek, Ama Birjiniak, aingerubak ta santubak ikusi zaitubeela dantzan. Duda bagarik lastima izan deutesubee, iku-

sita zure bijotza ain gogoz ta zur alako zorakeri-  
jan ta tontakerijan. Pensau egizu bostgarrenian,  
ai, nire tristia! Dantzan ibili nasaneko denporia  
juan jat. Erijotzia leen baino urrago daukat...  
Bere dantzara dei egiten deust onek. Orduko soi-  
nuba izango da nire zuzpiruba. Ta orduko dan-  
tziaren azkeneko jiria bitzitzati eternidadera.  
Oneek imini deutsudaz, pensau daizuzan. Baina  
(Jaungoikuaren bildurrik badago zugar) berak  
ekarriko deutsuz beste pensaukizun batzuk ata-  
rako». Ara emen san Pranzisko Salesek Philotea-  
ri emon eutsan, dantzan egiteko lizenzia. Zora-  
kerijak, tontakerijak, nezedadiak, arrisku andi-  
kuak, peligru andikuak, beti gauza txarrera-  
kuak, banidadezkuak, bijotzaren berenozko illga-  
rrijak ta, oneenak bere, bapere balijo ez dabee-  
nak diriala dantzaak, dino Santubak. Modestijaz,  
errespetoz, juizijoz, intenzinoe onagaz ta moti-  
buagaz gitxitan ta gitxi dantzan egiteko, esaten  
deutsa san Pranzisko Salesek Philoteari. Ta egi-  
ten daben banakaan esan dirian bost gauzaak ta  
geijago penseetako, dantzeetako berenuak ill ez  
dagijan. Au dino Santu andijak izentau dan kapi-  
tuluban ta aren urreenguan. Ta oraindino puska

bat estutxubago laugarren parteko seigarren kapituluban, nun kondeneetan dituban Santubak pekatuzat emen esan dirian baino etxura arinagoko ta txikijagoko paltaak bere. Egin bekijo, bada, ondria Eleisiaren santu ta obispo andijari. Ta ez bedi aotan artu, dantza pekatuzkuak ontzat emoteko.

#### §. IV.

*Abadiak eta prailiak*

*bere juaten dira piestara...*

*Txaarrak balira, ez litzaatekez juango.*

Laugarren lekuban dinue dantzaarijak abadiak eta prailiak bere juaten diriala dantzetara; saraubetan dantzan bere egiten dabeela batzuk; txaarrak balira, sazerdote jaunak ez leukeela egingo...

Erantzuten jakue abade bat nai praile bat juan leitekiala (edo juan biar dabela) piesta egunian piesta egiten dan lekura, edo sermoia egitera, edo mezia esatera, edo meziari lagundutera, edo beste jagokan biar bat egitera. Ta baita

egun atan geratu bere estadubari jagokan etxian ta lagunakin. Abade batek edo praile batek piesta egunian au egiten dabelako inor eskandalizetan bada, parisijuen eskandaluba da. Ta ez dau mereziduten kasurik egitia.

Ez dogu ori gaiti esaten, dinue dantzarijak, ez bada abadiak eta prailiak piestara juanda, jente artian sartuta, geu legez olgeetan bertan ta arutz ta onutz ikusten ditugulako. Oni erantzuten jako ez diriala guztiak izango. Ezda gitxiago ta gitxiago bere. Batzuk egiten dabeena ez dala guztiak gaiti esan biar. Judasek Jesus saldu ebalako ez da esaten apostolubak saldu ebeela, ez bada apostolu batek saldu ebala edo Judasek saldu ebala. Bigarrenian erantzuten jakue abadiak eta prailiak bere pekatu egin legijeela. Abadentzat ta prailentzat bere baguala inpernuba, gaiski egiten badabee, ta eskandaluba emoten badabee beste edozein pekatarientzat legez. Abitubak soinian janzijak ta sotania iminita koroia edegijak salbauko baginduz, ondo gengo-kez prailiok eta abadiok. Baina ez. Geure estadu santuko ta altuko zereginak gordiak salbau biar-ko gaituzeruko grazijagaz.



Irugarrenian erantzuten jakue esan dirian dantzaak ta piestak, bestenzat libre balira bere, abadentzat ta prailentzat pekatu diriala. Ez da errez sinistuten sazerdote jaunak ta relijiosuak, eureen estadu santubagaz aaztuta (jentiak esaten daben legez ta sarritan arpegijan ezarten deuskun legez) saraubeetan dantzan egiten dabeela; ta ezda orrako esan dirian piestetara ta erromedijeetara juanda, gizon ta emakumen artian, neska ta mutilen artian naastian sartuta, olgeetan ibilten diriana bere. Emen egon leiteke engainu andija eleiza gizonen kleitu onaren kaltian. Dantzazaliak lagunak gura ditubee. Ta zeinbat estadu altubagokuak, ainbat naijago, eureen dantza loijak nok jaso eukiteko. Au gaiti esaten dira txito gauza asko sazerdote jaunak ta relijiosuak gaiti. *Au egin dabena... onan ibili dana... an izan ei zana...* Onako guzurak laster sinistuten dira eleisa gizonen kontra. Ta lasterrago zabal-duten dira. Norbait inos ikusi badabee gauza gitxi baten deskuideetan, aorik aora geitubaz zabal-duten da bertati. Ez da, bada, sinistuten, abadetegija ta prailetetegija juaten diriala piestetara, edo egiten dabeela dantzan, jentiak esan

gura leuskegun moduban; ezda gitxiago bere euskal-errijetan, ez Espaina guztian.

Bada, sinistuko dau inok sazerdote bat (ta oraindino ezainago relijioso bat) bere estadu altubaren, santubaren ta garbijaren lotsarijan ta ordiako sakramentubaren desondraan ibiliko dala piestetetan ta dantzeetan? Ez egitia, eze ikustia bere Eleisiak eurai pena andijakin eragotzita daukan olgeeta inpameetan? Jaungoikuak bere etxia zaintuteko esleidu dituban gizonak? Pekatarijagaz Jaungoikuaren arteko bakeginak? Jesus geure Salbadore maitia ta garbija zeruti eratsita, egunian egunian eskubetan darabileenak? Altra gainian guztioen osasuna gaiti Aita Betikuari Bildots garbija eskintzen deutseenak? Sazerdote jaunak? Oneek ibiliko diriala piesteetan, erromedijeetan ta saraubeetan neska artian ta mutil artian erdikomiko eginda olgeetan? Ez da errez sinistuten.

Baina badago abaderik edo prailerik, ain diabrubak itsuturik edo ez jakinik, esaten jako trago mingotxa arimiari emoten deutsala, doian bakotxian. Erakuslen esanian pekatu mortala egiten dabela, doian bakotxian, juatia bera gaiti ta

alako piesta desonestuba berarjaz ikustia gaiti. Naasteko dantzaak berarjaz ikustia ta arei begira egotia bere eragotzita dago aparteko legiagaz eleisa gizonai, pekatu mortalaren beian, dinue erakuslak. Sinistuko ete dau au alako eleisagizonak, deskuiduan inor bada, onan dana? Jazo leiteke guztiz itsututa egotia edo txito gitxi jakina izatia.

Bada, Eleisako konzilijo ta erakusla guztien dotrinia da. Eleisiaren bostgarren giza alditi asita andi Trentoko konzilijora gino asko izenteetan ditu Benedikto XIV. eleisagizonai naasteko dantzeetara juatia ta ikustia bere pena andijeen beian eragozten deutseenak. Eleisiaren neurgarri edo *canon*, ta kongregazioe sagradukuaren ordena asko bere izenteetan ditu Aita Santubak berak; zeintzubetan eragozten jakuen eleisagizonai ez bakarrik alako lekubetan dantzan egitia, ezbada baita besteen naasteko dantzia berarjaz ikustia bere, pekatu mortalaren beeko agindutzat. Natal Alexandrok dino pekatu mortala egiten dabeela eleisagizonak alako olgeeta naastauti aparteetan ez dirianian. Bederatzi konzilijoren esanak iminten ditu erakusliak berak, nun

agiri dan Eleisiaren aginduba argiro. San Antoninok pekatu mortalaren beian eragozten deutseez eleisa gizonai alako dantzaak, dino Benedikto XIV. Baita san Karlos Milango obispo jaunak bere. San Pranzisko Salesek eragotzi eutsezan, Eleisako opizijuak ez egitiaren beian. Antoinnek beste ainbeste dino san Buenabenturagaz. Santo Tomasek beste ainbeste dino. Baina zetarako da kansetia? Egija topau gura dabenak irakurri begiz Benedikto XIV., sinodo diozesana ta instruzinoiak, erdera ta latin guztien eskubetan dabizanak. An topauko da ezetara bere ez dala libreetan pekatu mortaleti, berarjaz pistetara ta dantzetara olgeetan doian abadia, ez prailia.

Ta esaten badau inok, leen ez arren, orain usetan dala ta ez dala pekatu abadiak eta prailiak alan ibiltia, Trentoko konzilijuan deklarauta ta aginduta dauka abadiak eta prailiak piestetara ta dantzetara ez juateko; leenago Eleisiak ta konzilijuak agindu dituben ordenak gordetako, ta usadijuaren edo oituriaren atxakijak ez dagijeela balijo lege onen kontra... Ta obispo jaunai aginduten deutsee konzilijuak pekatu mortalaren beian, dino Benedikto XIV., kastigau dagijezala,

legiak aginduten daben moduban, piesta edo dantzetara juaten dirian eleisa gizonak. Ez dago usadijorik, ez dago atxakijarik, ez dago urteerarik eleisa gizonak berarjaz dantza ta piestetara juateko. Atiak guztiak itxita dagoz. Ez dago sinodalik eleisa gizonai alako eskandaluba parkatuten deutseenik. Alan ikusten dogu gorde bere egiten diriala lege santu oneek eleisa gizonen exenplu andijagaz. Deskuiduan ezjakin tristen bat nosbait deskuidau bada, orduban dantzazaliak santipikau gura litukee eureen nasaitasunak, *abadiak ta prailiak bere egiten dabeela* esanda.

Ta izango da au atxekija ona dantzarijenzat eurak juateko ta ibilteko, oi dabiltzan moduban? Ez. Alperrik esango dabee. Ez deutsee balijo. Ez ditubee edertuko ta gitxituko au esanagaz eureen dantzetako pekatu loijak. Baina gusto emon daijeegun onei. Ta esan daigun, gura badabee abaderik ta prailerik geijeena juaten gariala piesteetara, erromedijeetara, saraubee-tara ta naasteko dantzeetara. Zer daukagu one-gaz? Nik lapurretan egiten dodalako; bidauak ta maldezinoiak ezarten ditudalako; logreruba

nasalako edo pekatuban komulgeetan nasalako, esango zenduke gauza oneek egitia ez dala pekatu? Esango zenduke abadiak eta prailiak bere egiten ditubeela ta zeuk bere egin zinaizala? Bada, beste ainbeste . Abadiak ta prailiak piestetara ta dantzeetara juango balira bere, zubek egitia esan dan moduban pekatu da. Abadeena ta praileena andijagua (juaten badira); baita zubeena bere kondeneetako duina. Jazo leiteke alako prailerik edo abaderik bada, zeu-been dantzeetako ta piesteetako pekatubeetati zubei absolbidutzatzo bat edo askatutzako bat konpesinoian errezto egitia ta pekatuko okasinoe jakin orretan zubei ibilten istia. Baita jazo leiteke (ta erremedio bagarik jazoko da, penitencia egijazkua egiten ez bada) areek eta zubek, konpesore ta penitente guztiok, alkarregaz inpernu-ko dantzara juatia bere. Au da alako guztiai Espiritu Santubak esaten deutseena: *Ducunt in bonis dies suos et in puncto ad inferna descendunt.* Esan daneti aituko dozu ez deutsula baliyo abadiak eta prailiak bere juaten diriala esanak, zeubek dantza naastaubeetan ibilteko.

## §.V.

*Piesteetara ta dantzeetara juan arren,  
ez dot nik pekaturik egiten.*

Bostgarren lekuban piestazaliak edo dantzaarijak agertuten dira beste urtenera bategaz ta esaten dabee *piesteetara ta dantzeetara juan arren, ez dabeela pekaturik egiten*. Ai, au gauza ederra da! Ditxosuak eta zorijonekuak alako semiak eta alabaak! Oh, dantzarik dantza, piestarik piesta, erromedijarik erromediya, bigirarik bigira ta saraurik sarau neska ta mutil, andra ta gizon naaste, gau ta egun oi zabiltzan moduban ibilita, pekaturik egiten ez dozun bedeinkatubok! Lastimia nortzuk zarian ez jakitia! Duda bagarik Eleisiak altareetan iminiko lituke, ango leengo santubai alde eraginda, baleki nortzuk dirian alako gorputzezko aingerubak, sutan sartuta erreetan ez dirianak; batsatzan ibilita, loituten ez dirianak; pikiagaz lo eginda, garbi jagiten dirianak. Lastimia! Orrako dantzari santu orreek, piestazale bedeinkatu orreek okasinoerik sutsu-beenetan eureen gustoz ibilita, pekaturik egiten

ez dabeen orreek, gure ao lotsa galduketati ainbeste pikaerdija entzun biarra. Oh, ze gitxi jakinak zirian san Anton bat, san Jeronimo bat, san Agustin bat, Arsenio bat, Paulo bat, Benito bat, Madalena bat, Pelajia bat, Tais bat ta beste milla onako! Ez jakinak, dinot, dantzarijen bur-laz. Bada, areek, okasinoeti iges eginda, gorpu-tzak ondo ta sarri zurruta, lua ta jana laburtuta, begijak ta sentidubak kontu andi bategaz erabi-lita bere, nekez goitu zitubeen aragijaren tenta-zinoiak. Ta dantzarijak okasinoerik bitzijenian ta sutsubeenian eureen guraz ainbat onduen apainduta, janda, edanda, gau ta egun naaste ibilita, ez dabee pekaturik egiten.

Zetaragino diabrubak itsutu ete legi kristi-nauba? Esaten jakue, bada, onei itsututa bitzi diriala. Gorputza ta odola eukitia asko dala. Adanen semia edo alabia izatia asko dala, alako oka-sinoian bere guraz sartuta, pekatu egin bagarik ez irauteko. Ta bere naiz, premina bagarik, oka-sinoe jakinera juatia bera dala pekatu. Baina piestazaleen konzienzijaak oitura txaarren tintia-gaz zetakatuta dagozan legez, sakrilejijo bat, adulterijo bat edo aitagarri ta amagarri bat osotu



artian, beste kastidadiaren kontrako desonestidate nasaija ez daukee pekatutzat. Ta lotsarizko zatarkerija guztia egin ta eraginda gero, esaten dabee ez dabeela dantzeetan pekaturik egiten. Onei jazoten jakue gela estu baten lutzaro oian daguan gaisuarena. Gela guztia atsituta dago. Kanpoti sartuten dirianak ezin egon dira atsa arren. Ta oian daguanak esaten dau ez dabela atsik sentiduten. Piestazalen arimak milla pekatu mortal entzun, esan, ikusi, pensau, naitu, egin ta eragin ditubee dantza ta piesta orreetan eureen guraz. Beste guztiak urrineti bere sentiduten dabee eureen pekatubeen atsa. Ta eurak uste dabee, aingerubak baixen garbi dagozala. Ez dabeela pekaturik egiten.

Onei esaten jakue ostera bere ez dakijeela dotrinarik. Ez daukeezala pekatu mortalak pekatu mortaltzat; ezda askok benialtzat bere. Ezin alan esamarik egin legijeela. Aituten ez ditubeen ta aintzat ez daukeezan pekatubeen damurik artu ezin legijeela. Sarri konpesau arren, bein bere ondo konpesetan ez diriala. Ta ondo konpesau bere ezin leitekezala, arian da, dotrinia ikasi,

pekatu mortalak ainzat artu, areekin garbatu ta pekatuko okasinoe urrekuai isteeko asmo sendua artu artian. Konpesau begijee oneek guztiok, bai zaarrak, bai gaztiak, bai gizonak ta bai emakumiak orrako piesteetako, erromedijeetako, bigireetako ta saraubeetako dantzeetan ta ibilteetan zer entzun dabeen, zer ikusi dabeen, zer esan dabeen, zer desiau dabeen, zer egin dabeen, bestiai zer eragin deutseen, zer eratso deutseen, ze gogogaz, ze borondategaz, ze kari-nogaz, ze arpegi eragaz ta zeinbat bidar egin ta eragin, esan ta eratso, entzun ta ikusi, pensau ta desiau, leku emon ta nai izan dabeen eureen bijotzian. Ta agertuko da eureen konzienzija. Baina zelakua? Ah! Eurak bere lotsatuten ditubana. Orraitino naiko dabee dantzazaliak ta piestarijak presko preskorik ta merke merke sinistu daijegun, orrako piestetetan, erromedijeetan, bigireetan ta saraubeetan dabiltzan moduban ibili arren, ez dabeela pekaturik egiten. Eh! Zeubeen lagunai ori burloori. Geijago ez esatiarren.

## §. VI.

*Dantzeetan ez eze eleisaan  
bere pekatu egin legi nai dabenak.  
Ara bere ez juan.*

Piestazaleen seigarren argumentuba edo urteeria da eleisaan bere nai dabenak, pekatu egin legijala. Bada, naasteko dantzara juan biar ez bada pekatuko okasinoa dalako, eleisia bere pekatu egiteko okasinoa izan leiteke ta ara bere ez da juan biarko, edo piesteetara bere bai, pekatuko okasinoa izan arren. Dantzarako libertadia gura leukee, eleisaan bere pekatu egin legijala esanagaz.

Onei erantzuten jakue bapere pena bagarik eleisaan bere pekatu egin legijala; baijetz. Luziperrek zeruban bere egin ebala pekatu. Ta gizonak nai emakumiak eleisaan bere egin legijala, etxian bere bai, soluan bere bai, altaraan bere bai; edozein lekutan, bitzi dan artian. Baita illten daguanian bere, gura badau egingo dau pekatu. Ta zer daukagu onegaz? Au egijia izan arren, leku guztiak dira bardinak pekatu egiteko? Nun nai gaixotu leitekee. Baina sekeradunagaz lo

egiten dabena ala kanpo etxe osasuntsu baten bitzi dana leenago ta sarrijago? Nunnai ill leiteke. Baina gaixo deunga bat sartu dan errijan, ala osasun onekuan dago illteko peligru geijago? Nunnai gizona galdu leiteke. Baina lapurrez beteta daguan portuti doianak ala bere etxe onian daguanak dauka galduteko arrisku geijago? Nunnai jausi leiteke. Baina kalzada lauban ala aldapa labanian lasterrago? Oneen errespuestia zeubek dakizu.

Beste ainbeste ta milla bidar geijago dira, bada, eleisia ta naasteko dantzia edo piestia pekatu egiteko. Eleisia Jaungoikua ezaututeko, alabeetako ta ameatako lekuba da. Naasteko dantzia diabrubak, munduba ta aragija serbiduteko lekuba ta opizijua da. Eleisia pekatu egin bagarik bitzi izateko, deskuiduan egiten bada erremedijeetako, arimak onduteko ta zerura eruateko lekuba da. Piestia ta dantzia pekatubak geituteko, arimak kondeneetako ta inpernuba beteteko lekuba da. Eleisia Jaungoikuaren, aingerubeen ta santubeen leku estimauba ta santuba da. Naasteko dantzia diabrubak ta pekatarijak olgeetako, Jaungoikua ukatuteko, santubak

desondreetako ta zeruba tristetuteko toki apartekua ta billatuba da. Eleisia arimak zerura igoteko eskelaria da. Dantzia arimak inpernura jas-teko bidia da. Eleisaan bere pekatu egin legi. Bai. Baina eleisaan euneti bik pekatu egiten badabee, dantzati ta piestati euneti iru etxera juaten ez dira, pekatu egin edo eragin bagarik. Ez da, bada, zetan esan: *Eleisaan bere pekatu egin legi, dantza loijeetera juateko.*

§. VII.  
*Gaztiak zetan edo atan  
olgau biar dabee.*

Zazpigarren lekuban dinue dantzaarijak, *gaztiak zetan edo atan olgau biar dabeela*. Berbee-ta onek utsegite bi daukaz. Bata da gaztiak zetan edo atan olgau biar dabeena. Ez da au egiija. Egiija da nosbait olgeetia naturaleziak eskatuten dabena. Baita zetan edo atan olgau leitekiana bere, bai zaarrak ta bai gaztiak, bai prailiak ta monjaak bere. Au esanda geratu da leen. Baina olgau biar dana, edo gaztiak olgau

biar dabeena, ez deusku inok erakusten. Ez dogu irakurten Jesukristo olgau zanik. Ezda Ama Birjina olgau zanik bere. Ezda san Juan Bautista olgau zanik bere. Santubak ez zirian dantzariak uste dabeen moduban olgau. Ta inos olgau bazirian alan, ez santu zirianian. Kontuban jausi zirianeti aurrera, negar mingotx asko egin ebeen, alan olgau zirialako. Madalena bat, Maria ejiziala bat, san Agustin bat, san Andres Korsino bat, san Abertano bat ta beste asko dira onen testigubak. Bautismo santuban ez genduban agindu olgeetia, ez bada mundubaren, aragijaren ta diabrubaren kontra beti pelietia. Ez deusku ebanjelijuak aginduten olgeetako, ez bada gau ta egun kontuban egoteko, arerijuak artu ez gaizan. Geratu bagarik orazinoia egiteko, tentazinoian jausi ez gaitez. Pekatuko okasinoeti ta peligruti iges egiteko, bertan galdu ez gaitez. Gorputzari gurarijak ukatuteko... Penitentzia egiteko... Kurutzari jarraituteko... Au da aginduba. Au da biar dana. Ez olgeetia. Jentia zetan edo atan olgau biar dau; edo jentia zetan edo atan olgau bagarik egongo ez da penseetia, errege, agintari edo legegin batentzat ondo da. Kristinau bako-

txarentzat ta arimia salbeetako, ez olgeetia ta penitenzija egitia oba da.

Bigarren utsegitia da gaztiak zetan edo atan olgau biar dabeela ta piestaak, erromedijak, bigiraak ta saraubak ontzat emotia. Oneen kontuban, gaztiak zetan edo atan olgau biar dabee ta olgau biar dabeen ezkerro, olgau leitekeez pekatu egiten. Olgau biar dabeen ezkerro, ez da pekatu izango, neskaak ta mutilak gau ta egun naaste dantzan, nai dabeen moduban ibiltia. Olgau biar dabeen ezkerro, ez da pekatu izango leen esan dan desonestidade guztia esatia, egitia, entzutia, ikustia, goguan erabiltia ta nai izatia. Gaztiak olgau biar dabee ta, olgau biar dabeen ezkerro, ez da pekatu izango pekatu egiten olgeetia. Guk au esatia nai leukee dantzazaliak. Nai leukee gaztiak zetan edo atan olgau biar dabeela ta, lizenzija emon dakijuen piestarik piesta, erromedijarik erromedija, bigirarik bigira, saraurik sarau ta dantzarik dantza neska ta mutil, gizon ta andra naaste alemanijeen gisaan luxurijotsu ibilteko. Edo berba baten esateko, nai leukee lizenzija emon dakijuen Jaungoikuaren lege santuba austeko. Edo, esan dakijuen peka-

tu egitia ez dala pekatu. Oh, madarikatubak, dino Spiritu Santubak, gauza onari txaarra ta txaarrari ona esaten deutseenak!

Entzun dot, ta ez bein bakarrik, (menturaz guzurra) konpesore batzuk emoten deutseela lizenzija jentiarri izentau dirian olgeetara juateko, *ondo ibili zaite* esanda. Au egijia bada, ezin aitu dot nik zelan dan *ondo ibilte au*. Bada, ondo ibiltia bada mundubaren ta aragijaren erara, eurak egiten dabee konpesorek agindu bagarik, txito ondo ta ainbat onduen. Ta ez dauka inok zetan buruba kansau dantzazaliai piestaan... ondo ibilteko esaten. Ondo ibiltia bada Jaungoikua open didu bagarik esan dirian dantzeetan ta piestee-tan, oraindino gitxiago aituten dot. Dinot bene benetan ez dodala aituten zelan dan ondo ibilte au. Leenago esango neuke, ondo ibilteko esanda alako okasinoe desonestura juateko lizenzija kristinaubai emoten deutsanak, edo ez dakijala zer dirian olgeeta areek, edo ez dakijala *moral*a deritxon dotriniaren asierarik, edo (gitxien sinistu biar dana) dala lagun dantzarijai pekatu egitia pekatu ez dala esaten deutseena. Ez da, bada,



zetan esan gaztiak zetan edo atan olgau biar dabeela, olgeeta pekatuzkuak oinian eukiteko.

## §. VIII.

*Oba da alkarregaz plazaan edo sarauban edo bigiraan olgeetia, ezkutubeetan gauza txarraguak egitia baino*

Azkenian dinue dantzazaliak oba dala piestara plazara edo bigirara edo saraura juanda an guztien artian olgeetia, ezkutubeetan gauza txarraguak egitia baino. Oneek autor dabee piestaak eta erromedijak eta bigiraak eta sarau-bak txarrak diriana. Ezaututen dabee olgeeta areetan arimak osasun onik ez daukeena. Baina bildur dira, pekatuzko olgeeta arei itxita, arimak gaixotubago egin ez ditezan. Orregaiti dinue oba dala, ara juanda, an ibiltia. Onei erantzuten jakue: I. Bata bere ez diriala onak. Bijak diriala txarrak. Bata bere ez diriala egin biar. Pekatu mortal andijaguari itxita mortal txikijagua egin dabelako, ez da inor salbauko. Zaldi bat oostutia

baino gizon bat illtia pekatu andijagua da. Ta oostu legi zaldija, pekatu txikijagua dalako? Basuan oostutia baino eleisaan oostutia pekatu andijagua da. Ta basuan lapurretan egitia ez da pekatu? Libriagaz pekatu egitia baino ezkondubagaz egitia txaarrago da. Ta libriagaz egitia ondo da? Gizonik ill ez arren zaldija oostu dabena, eleisan ez arren lapurretan egin dabena, ezkondubai bakian itxi arren libriagaz pekatu egin dabena, erremedijeetan ez bada, nora juango da? Beste ainbeste esaten da, bada, olgeeta galdu orreek gaiti ta ezkutubeetako gauza txaarraguak gaiti. (Badago eurak baino txaarragorik). Bitzubak dira txaarrak. Ta bata bere egin biar ez dira. II. Esaten jakue engainauta dagozala. Ez dira ezkutubeetako gauza txaarraguak erremedijeetan plazako dantza naastaura juanagaz, ez bigiria eginagaz, ez saraubagaz. Dantzara juanak dakarz geijeenan ezkutubeetako ta agiriko gauza txaar ta txaarrago guztiak. Naasteko dantzia da pekatu guztien erne lekuba ta tokija. An ikasten dira okerrerija guztiak. An batuten dira adiskide txaarrak. An iraasten da luxurijaren gai-

xua. An ezaututen dira bijotzeko karinuak ta maitekerijaak.

An egiten dira isil mandatubak ta batuten da aragijaren gosia. An ikasten dira inor engainee-tako arte asmotsubak. An topeetan dira guztira-ko lagun jakitunak. Ta an egin ezin dana, egiten da gero ezkutubeetan. Au ezaututeko ez da jaki-turija andirik biar. Errijeetako jentiari puska bat begiratutia da asko. Piestako ta naasteko dan-tzati alde egiten dabeen kristinaubak, bai, okasi-noe areetan sartu ez oi dirianak, zer esan gitxi emoten dabee errijan, sentimentu gitxi gurasuai, ta zeregin gitxi justizijari. Begiratu bekijue orra-ko plazako dantzeetan, bigireetan ta saraubee-tan oinik iminten ez dabeen kristinaubai, bai zaa-rrai ta bai gaztai, bai gizonezkuai ta bai emaku-miai. Ta ikusiko da edozein lagun artetan erakus-ten dabeela eureen egoneriagaz, ibiliteriagaz, berbeetiagaz ta jeriagaz eldutasuna, atsetasuna, juizijua, lotsa ona ta kristinau usaina. Ez zaarrak bakarrik au, ezbada baita mutil gaztiak ta neska-tilla gaztiak, edadiaren lorakuak ta mundurako ezer galduta ez daukeenak bere. Edozeinek erri-jeetan erraparau daikien egijia da au.

Baita egijia da dantza naastauti urteten dabeela edo dantzazaliak diriala geijenian ezku-tubeetako ta agiriko okerrijaginak ta gaiskinak. Ezpabere, betoz guztiok esaminara. Esan beit: Nortzuk dira eureen ibilieraan ta egoneraan jagi-tasuna, arrotasuna, burueritxija, dotorerija ta besteen desprezijua erakusten daukeenak? Pies-tazaliak. Nortzuk dira eureen berbeeta ta menuetan azalckerija, berdeckerija, errazoe eltza-kaak, ezizen desonestubak ta lotsarizko maite-kerijaak edonun esan ta egiten ditubeenak? Dantzazaliak. Nortzuk dira, eureen jantzijan banidadia, modia, indezenzija ta luxurijaren kon-bitgarrija darabileenak ta auzuai zer esan ta zer pensau emoten deutseenak? Piestarik piesta ta saraurik sarau dabilznanak. Nortzuk dira, eureen lagun arteko tratu ta artu emon popuertzakue-tan guzurra, enbusterija, esker txaarra, deunga-ro esatia, inoren bitzitzaak jakitia, areek kontee-tia, sospetxa ta juzku gaistuak zabaldutia ta jente guztia aotan erabiltia, jaijotzako ekandu-tzat ta zeregintzat artuta daukeenak? Bigirarik bigira, erromedijarik erromedija ta dantzarik dantza ibili dirianak ta dabilznanak. Nortzuk dira

eureen etxeetan dotrinarik ez dakijeenak, senar emazteen artian bake txarra, alkar jotiak, alkarreganik aparteetiak, zeluak, alkar ikusi ezinak ta eskandaluba zabalduen dabeenak? Nortzuk dira gaiski azitako umiak, lotsa galdukuak, gurasuai karinorik ez deutseenak, deungaro erantzuten deutseenak, nai dabeenian baino obeiduten ez deutseenak, beti jantzi barrijaren eske dagozanak, dendarako ta beste tratu txarretarako ta inpameetarako, patrikaraan edo muxilleetan laboria edo al dagijeeena etxeti oostuta alkaboetiai emoten deutseenak, etxerako ta gurasuentzako gozo gaistua daukeenak ta plazeetara ta kanpora agertuteko uzija ixia daukeenak? Piesteetan, erromedijeetan, saraubeetan ta bigireetan ezkontzaak asi zitubeen gurasuak ta umiak. Nortzuk dira errijetan zer esana ta zer egina emoten dabeenak? Adiskide galdubak daukeezanak? Sospetxako etxeetan sartu urtena daukeenak? Murmurau eragiten dabeen lagunakin ezkutubeetan, sasi arteetan edo solo baztarreetan dabilzanak? Justizia aurrera ta kura jaunen aurrera alkar eruaten dabilzanak? Nortzuk dira seinaren aitarik topau ezinda dabilzanak? Esan

beeban ezbeeban, edo emon beeban ezbeeban-  
go ezkontzako berba bat gaiti auzitan dabilta-  
nak? Justizia aurreti derrigorrian legez ezkondu-  
ten dirianak? Nortzuk dira jokalaridak, etxe gal-  
tzailiak, kastalaridak, desapijoginak, lapurrak ta  
euren etxeen ta errijeen pestiak? Piestara, bigi-  
rara, erromedijara, saraura ta tanbolin dantzara,  
al izan ezkeru, inos paltau ez dabeenak.

Nortzuk dira eureen konzienzia nasaikuak?  
Jaungoikuagaz gitxien gomutatuten dirianak?  
Sakramentu santubak errezibidutera nekezeen  
elduten dirianak? Jaungoikuaren berbia gitxien  
entzuten dabeenak? Konpesinoiari, sermoiari,  
Eleisa santubaren oitura onai, eureen gustoko ez  
dirian kura jaunai, sazerdotiai ta justizijari burla-  
rik geijeen egiten deutseenak? Nortzuk dira  
geure kristandadeko gauza ta egijia santubak  
barre egiteko ta eragiteko baino aotan artuten  
ez ditubeenak? Eurak legez piestarik piesta ta  
dantzarik dantza ez dabilen guztiari, beti gerria  
armauta daukeenak? Nai sazerdotia dala, nai  
kaballerua dala, nai konpesoria dala, nai ezkon-  
duba dala, nai libria dala, eureen olgeeta nasai-  
jeen ta pekatuzkuen kontra ezer esan edo era-

kusten dabenari, al dagijuezan guzur ta enbustearija mingarriyak pena bagarik ezarten deutseezanak? Nortzuk dira eleisaan nekezeen sartu ta andi lasterreen urteten dabeenak? Auzo bategaz edo bestegaz egarrija, gorrotua, enbidija ta ikusi ezina edo asarria nekez paltau oi jakuenak? Nortzuk dira an beekuen izen madarikatuba sarrijeen auan darabileenak? Nortzuk dira...? Baina nortzuk izango dira oneek guztiok? Orrako piesta artian, sarau artian, bigira artian, erromedija artian ta dantza artian sortu, azi ta bitzi dirian gurasuak ta umiak. Orreek dira geijeenok mundu guztiaren bistaan. Orreek dira errijeetako pestiak. Orreek dira Jaungoikuaren legerik geijeena ostikopian darabileenak. Orreek dira pekatu egitia pekatutzat ez daukeenak. Orrek dira nos pekatu egiten dabeen ta nos ez dabeen ez daki-jeenak. Orrek dira kristinaubeen sinistutia ta jentileen egitadiak daukeezanak. Orreek dira ume-tati etxeko ta auzoko sarau ta bigireetan ikusi ta ikasi zitubeen pikerdija ta okerreriya desonestu-bak, puska bat azitxubago eginda plazako ta erromedijako piesteetan barriro entzun ta esan ta ikusi ditubeenak, gero ezkutubeetan egiten

ditubeenak. Orreek dira gurasuen exenplu txarrak malezija ta piestarako gurarija emon eutseenak. Piestarako gurarijak lapurretaak, maina gaistuak, alkaboeterijaak ta karino loijak bijotzian imini eutseezanak. Piestaan ta dantzanaaste ibilijak. Jaungoikua aaztu eragin eutseenak ta diabrubaren krijadu ta krijada egin zitubanak. Orreek dira, piestazaliak dira, agiriko ta ezkutuko pekatuginak ta pekatu eraginginak. Zerbait gaiti jentilak eurak bere, Katonek ta beste askok, kendu gura izan zitubeen Erromati naasteko dantzaak. Errijeetan ta etxeetan gorde zedin naturaleziaren modu ta giza usain puska bat.

Engainatuta bitzi dira, bada; edo engainau egin gura gaitubee izentau dirian olgeeta nasaijakin ezkutubeetako gauza txarrak erremedijeetan diriala esaten deuskubeenian. Ez dira erremedijeetan. Dantziaren ta piestiaren umiak dira ezkutubeetako pekatubak. Baina gitxituten balira bere, pekatu da alako dantzeetan ibiltia, leen esan dan legez. Ta ara emen zortzigarren urteeriaren errespuestia.